

GAIA: TKNIKA • ESPERIENTZIA: IHINTZA ALDIZKARIA • EKARPENAK:  
BUSTURIALDEKO ESKOLA TXIKIAK ETA ARTAZIAK • GALDEIDAZUE: IÑAKI  
EIZMENDI • EKAINBERRI • ATZEKO ATETIK: TERESA LOPEZ DE MUNAIN

**hh**  
**hik hasi**

**142**

4 EURO • 2009KO AZAROA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



*ELKARRIZKETA*

**Itziar Plazaola**

**Genevako (Suitza) hizkuntza ikerlaria**

Cornelia Funke  
**TINTA - BIHOTZ**

+13 urte



Eleberrri magikoa da hau, fantasiazko eleberrri bat; liburuen mundura bidaia eta literatur testu unibertsaletan maitasun aitormen bat. Zinemara eramanean den eleberrri hau trilogia baten lehenengo alea da.

**EZEKIEL**  
Jasone Otero

+13 urte



Ezekielek hamalau urte ditu. Bizitza bi partetan banatuta dauka; batetik etxeko istiluak daude, eta bestetik kanpoko giroa: eskola, lagunak, koadrilaren lokala eta... neskak.

**NIRE AMAK EZ DAUKA ERREMEDIORIK**  
Antoniñe Mendizabal - Markote

+12 urte



Tratik hamabi urte ditu eta oso argi ditu bere nahiak eta helburuak. Amak, ordea, oso bestelako ideiak ditu gauza askotan; espezial samarra da, xelebrea ez esateagatik.

# GOZATU LITERATURA

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

**elkar**

**RISKYREN IPUIN POLITENAK**  
Joaquín Iñorralde - "Mablin"

+10 urte



Risky eta bere lagunak abenturazale amorratuak dira, era guztietako abenturak bizitzea gustatzen zaie. Ipuin honetan, bakoitzak gustuko duen istorioa kontatuko du.

**JOXEMEREN ASMAZIOAK**  
Yabier Mendiguren - Jon Zabaleta

+10 urte



Alferra da Joxeme: gauza guztien gainetik ohean gelditzea gustatzen zaio, ezer egin gabe. Baina atzetik ditu beti helduak, hau eta hori egiteko agindu.

Mikel Valverde  
**RITA ETA HILOBI LAPURRAK**

+10 urte



Ritaren abentura bizi bizi bat, Egipton kokatua, sekretu zirrargarriz betea.

# aurkibidea



**8**  
gaia

## TKNIKA

Lanbide heziketaren helburua, ikasleak gizartean eta enpresetan eskaerarik handiena eta etorkizunik oparoena duten lanpostuetara iristeko prestatzea da. Eta horretan dihardu Tnikak, bere alorretik, berrikuntzaren bidetik.



**15**  
elkarrizketa

## ITZIAR PLAZAOLA

Genevako (Suitza) Hezkuntza Zientzien Fakultatean ari da hizkuntza ikerketa lanetan. 1985ean joan zen hara tesia egitera eta han geratu zen lanean. Aurtengo udan, Hik Hasi Udako Topaketetan aritu da hainbat aurkezpen egiten.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## TKNIKA

LANBIDE HEZIKETARAKO BERRIKUNTZA ZENTROA

**16** elkarrizketa

## ITZIAR PLAZAOLA

**24** esperientziak

*Ihntza* aldizkari digitala. Usurbilgo ikastola.

**26** ekarpenak

Busturialdeko eskola txikiak

**28** ekarpenak

ARTAZIAK arte hezkuntzako taldea

**32** galdeidazue

Familiak euskararen transmisioan. Zer egin daiteke gurasoek eta irakasleek norabide berean jardun dezaten?  
Iñaki Eizmendi

**35** berriak

**40** nora joango gara?

EKAINBERRI

**42** Atzeko atetik

Teresa Lopez de Munain

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-10-21). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
**HIK HASI** egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitez!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## azaroa

### *Indarrean da jada Katakuniako Hezkuntza Legea*



**Legeak berrikuntza nabarmenak ezartzen ditu orain arteko hezkuntza antolakuntzan. Besteak beste, katalana ezartzen du eskolako hizkuntza gisa.**

Kataluniako Hezkuntza Legea (KHL) indarrean sartu zen joan den irailean. Aurretik, uztailean 1ean, Kataluniako parlamentuak Unibertsitatez Kanpoko Hezkuntza Sistema katalana erregulatuko duen araua onartu zuen.

Arau horrek, beste berrikuntzen artean, ikastetxeen autonomi pedagogiko zabalagoa eta zuzendariei ahalmen handiagoa eskaintzen die; ikasle etorkinen banaketa zuzenagoa hitzmaten du sare publikoaren eta diru publikoarekin finantzaturako sare pribatuaren artean; irakasle talde propioa eratzen du; eta ikastetxe kontzertatutako eta ikastetxe publikoetako irakasle soldatak berdintzen ditu.

Bestalde, erregimen linguistikoak KHLren tituluetako bat bereganatzen du. Bertan, katalana Hezkuntza Sistemako eskolako hizkuntza dela xedatzen du, eta ikasleek derrigorrezko hezkuntzaren amaieran katalana eta gaztelania gutziz menderatu behar dituztela. Neurri horiek PPK eta Ciudadansek soilik kritikatu dituzte, gainera.

KHL zortzi urteko epean zabalduko da eta epe hori igarotakoan, hezkuntzan egiten den inbertsioa BPGren %6 izan beharko du.

Lege horren aurrekaria, 2005eko otsailean kataluniako jendarteko hainbat kidek Bartzelonan, Hezkuntzarako Foro Sozialean, aurkeztutako manifestua izan zen. Dokumentu hartan jasotako ideia bat izan da jendarteko hainbat eragileren artean lortutako akordioa lege bilakatu bitartean egindako ibilbidean erreferentzia: hezkuntza eskubide unibertsala eta ondare publiko dela, hain zuzen.

Era berean, aitortu eta aldarrikatu zuten Hezkuntza Sistemaren hobekuntzan jendarte eragile guztien inplikazioa beharrezkoa dela.

Hortik aurrera, Kataluniako Hezkuntza Sistema interes publikoko eredu gisa hartzeak bidean aurkitutako oztopoak gaintuzten, eta ez dira gutxi izan!, lagundu du.

Garai bertsukoa da Euskal Herrian jorratu zen Euskal Hezkuntzarako Oi-

narrizko Akordioa. Hura ere, jendarteko eta hezkuntzako hainbat kidek babestu zuten.

Hala ere, eta aitortu behar da, akordio horrek nekez lortu du bidean aurrera egitea.

Aztertu beharko genuke, hezkuntza munduan egiten diren hausnarketan eta eztabaidetan zenbateraino egiten diren herritar ikuspuntutik eta hezkuntza jendarte kohesionatu, bateragile eta juxtua lortzeko tresna gisa ikusiz, eta noraino egiten diren norberak mementuko interesei eta bere ziliborrari begira.

Euskal Herrian hezkuntzaren gainean burutu gabeko eztabaida zabala eta irekia dugu egiteko. Hezkuntza jendarte hobetzeko bitarteko baliotsua eta ezinbestekoa dela sinestuz lehenik, eta norberak bere jarrerekin bide horretan zertan laguntzen duen, edo oztopatzen duen, aztertuz.

Bartzelonan entzun genuen: "Bestelako mundua posible da, bestelako hezkuntza beharrezkoa da!"

# kronika

Hego Euskal Herrian, ikasturte honetan bertan, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle bakoitzak ordenagailu bat izango du ikastetxean. Horixe da Eskola 2.0 programak egingo duena. Hainbat esparrutan, kezka sortzen ari da irakasleen prestakuntza falta, baita Eskola 2.0 izeneko programak irakasleek duten «lan zama» handitu baino ez duela egingo pentsatzen da, prestakuntzarako ordezkapenak ez baitira jarriko. Eskola 2.0 programa ikastetxeetan ezartzeko baliabide bakarrak agindutako ordenagailuak omen dira.



Berria

## Nafarroako Hezkuntza kontseilari kargua hartu du Alberto Catalanek

Nafarroako Gobernuak CDN eta UPNren arteko akordioa hautsi ostean, Alberto Catalanek hartu zuen Carlos Perez-Nievasek utzitako Hezkuntza kontseilari kargua. Kargua hartu berri-tan «Nafarroako Gobernuak, euskara sustatzeko, Jaurilaritzarekin lanean jarraituko du», azaldu zuen. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean egin zuen bere lehen agerraldia Catalanek, eta Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilari ohiaren ildo «beretik» jarraituko duela jakinarazi zuen.

Joan den uztailaren 3an, Eusko Jaurilaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harreman protokoloa sinatu zuten, eta akordio hori garatzen jarraitzeko asmoa duela onartu zuen

kontseilari berriak. Catalanen arabera, «bi gobernuek euskara babesteko borondatea azaldu dute hitzarmenean». Hala ere, kontseilariaren ustez, badira ezberdintasunak: «Nafarroan euskarak duen egoera, gainontzeko lurraldeetakoarekin alderatuz gero, ezberdina da». «Nafarroako gune batzuetan euskaraz eta gaztelania hitz egiten dituzte; beste batzuetan, berriz, gaztelaniaz hitz egiten dute, eta, euskararen alde egin beharrean, ingelesaren alde egin ari dira», azaldu zuen.

## Nafarroa Oinez arrakastatsua

Bestalde, joan den urriaren 18an, eguraldi paregabearen laguntzaz, arrakasta itzela izan zuen *Txikiak Handi* lelopean, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolak antolatutako Nafarroa Oinez 2009 festak.

Aurten gutxitutako hizkuntzak dituzten Europako hainbat herrialdetako gonbidatuak izan dira Nafarroa Oinez: Aragoi, Katalunia, Bretaina, Gales eta Okzitania. *Txikiak Handi* izeneko gunean Aragoi, Okzitania eta Herrialde Katalanetako artisten emanaldiak ikusi ahal izan ziren.

**Bi urteko gure alaba "basatiaren" zoriona ikusita, pentsatzen dut zibilizatzen den neurrian jasoko dituen beldurrek orain den bezain alaia izatea eragotziko diotela. Eta pena da.**

## Jasone Osoro



### **Ipar Euskal Herrirako euskararen ofizialtasuna eskatu dute Baionan**

Milaka lagun bildu ziren joan den urriaren 24an Baionan. Deiadar mobilizazioak *Euskara, hizkuntza ofiziala!* lelopean antolatutako manifestazioan Ipar Euskal Herrirako euskararen ofizialtasuna eta hizkuntza gutxituen aldeko legea garatzeko eskatu zuten.

Ipar eta Hego Euskal Herriko eragile askok egin zuten bat aldarrikapenarekin, horien artean Seaska, Biga Bai eta Euskal Hazia biltzen dituen Hiru Sareta hezkuntza elkarteak.

Frantsesa hizkuntza ofizial bakarria delako, Parisen jarrera kritikatu du Hiru Saretak. Seaskak (ikastolen elkarte), Biga Baik (hezkuntza publikoko eredu elebiduneko gurasoen elkarte) eta Euskal Haziak (eskola kristauen sa-

rea), Hiru Saretan bat eginda, Frantziako Gobernuak euskararekiko duen jarrera salatu dute.

Frantziako Gobernuak hizkuntza gutxituen gaineko lege proiektua iragarri zuen, eta hitza betetzeko eskatu diote, besteak beste.

#### **Gameze-Zihigako eskolaren itxiera**

Bestalde, EHBE Euskal Herriak Bere Eskola herri mugimenduak, Zuberoako Gameze-Zihigako eskola txikiaren itxiera salatu du. EHBEren arabera, "iaz Paueko Hezkuntza Ikuskaritzak 25 irakasle lanpostu kentzea erabaki zuen, horietako bat Gameze-Zigako eskola txikian zegoen lanpostu bakarra. Hori dela eta eskolako ateak ixteko agindua jaso dute". Ondorioz, eskola horretan zeuden 6 ikasleek egunero autobusez joan behar dute beste eskola batera.

EHBEk erabakiak sortutako egoera salatu du: "Zuberoa desertifikazio egoera larrian dago, geroz eta gutxiago dira bertan ogibidea aurkitzen ez dutenak. Badira bertan Zuberoa bizi dadin eginko proposamenak eta lanak, baina horrelako erabakiek kinka larrian uzten dute Euskal Herriko lurralde hori".

Datorren urterako, hots, 2010erako, DBHrako, Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako 451 lanpostuko eskaintza publikoa egingo duela jakinarazi du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Hezkuntza Sailaren arabera, sektoreko sindikatuekin hitz egin ostean, azkenean, CCOO eta UGT sindikatuekin adostu du eskaintza. Bien bitartean, ELA, LAB eta EILAS sindikatuak; hau da, gehiengo sindikalak, sektorearen egoera kontuan hartuta Hezkuntza Sailak egindako eskaintza nahikoa ez dela salatu dute. Eskainiko diren lanpostu horietatik %20k ez dute ezinbesteko baldintza betetzen, 2. hizkuntza eskakizuna.

# GAIA

## Tknika

*Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroa*







## Lanbide Heziketa Euskal Herrian

**Lanbide Heziketa enpresetatik oso gertu egon da bere sorreratik. Horregatik, denboraren poderioz, praktikak erakutsitako bideari jarraituz, administrazioak, ikastetxeek eta gizarte eragileek adostasunera iritsi behar izan dute ikasketa esparru hori ahalik eta ongien gara dadin.**

**Azken urte hauetan, Errenteria-Oregetan (Gipuzkoa) kokatuta dagoen TKNIKA Lanbide Heziketako Berrikuntza Zentroa bide berriak jorratzen ari da. Hara joan gara egiten ari direna ezagutzeko asmoz.**

Lanbide Heziketak garrantzia du Euskal Herrian. Gaur egun, asko ari da aurreratzen eta aldatzen. Egokitze eta garatze horretan, sistema hobetzeko bide nagusia hau litzatekeela uste da: Lanbide Heziketa, bai hasierakoa bai lanean ari direnei zuzendutakoa, modu bateratuan antolatzea, helburu komunekin, lanbide erreferente berarekin. Gure enpresetan eta administrazioetan zein profesional behar ditugun antzemandako antolatzea ezinbestekoa da.

Ekonomiaren garapenak daraman abiadura eta forma aldaketa direla-eta, gaur egun, lanbide gaitasunak malguagoak izan behar direla uste da. Irakaskuntza formala, ez-formala eta informala kontuan hartzea eta egiaztatzea; motibatzea, kalitatea hobetzea, lan beharrei gehiago lotzea eta abar.

### Helburu orokorrak

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sistemaren helburuen artean hauek egongo lirarteke:

- Hasierako Lanbide Heziketako ikasleek gaitasun maila egokia lortzea.
- Biztanleria aktiboaren lanbidegaitasuna hobetzea, etengabeko eta lanerako Lanbide Heziketako onuradunak gehituz.
- Herritarren etengabeko ikaskuntza sustatuz, gurea, Ikaskuntzaren Herria bihurtzea.

### Epe motzerako helburu estrategikoak

Nagusiki hauek lirarteke:

- Hezkuntza Sistemaren emaitzarik onenak lortzea lan-munduratzean eta aurrerapen akademikoan.
- Hasierako eta etengabeko Lanbide Heziketaren eskaintzaren errendimendua nabarmen hobetzea.
- Irakasleen prestakuntza sustatzea, kompetentzien kudeaketa ongi bideratuz.
- Ikastetxeetako kudeaketaren kalitateari eta erabakitzeko ahalmenari, eta, langileen egonkortasunari bultzada ematea.
- Jendea Lanbide Heziketan eta Etengabeko Prestakuntza Sistematan txerta dadin, erraztuko duen informazioa, bitartekaritza eta aholkularitza eraginkorrak sortzea.
- Berrikuntzaren aldeko apustu argia egitea.

### Zer baliotan oinarritu?

Landu beharreko balioak edo printzipioak honakoak izango lirarteke:



- Konfiantza eta *empowerment*-ean oinarritutako gidaritza partekatua.
- Elkarlanean, argi jokatzean eta errespetuan oinarritutako harremanak.
- Taldean eta metodologia berritzailekin garatutako ikaskuntza praktikak.



# G

# Antolaketa

## Lanbide Heziketa Hego Euskal Herriko antolaketa





## TKNIKA

# Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroa

Definizioz, lanbide heziketaren helburua, ikasleak gizartean eta enpresetan eskaerarik handiena eta etorkizunik oparoena duten lanpostuetara iristeko prestatzea da. Eta horretan dihardu Tknikak, bere alorretik, noski. Berrikuntza-  
ren bidetik. Duela lau urte, 2005ean Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzak ala erabakita sortu zen Tknika. Nolabait, Lanbide Heziketak berrikuntza arloan aurrera pauso bat emateko beharra zuela iritzita. Berrikuntza Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Lanbide Hezikuntzaren ardatz nagusi bilakatzea da Errenteria-Oreretan (Gipuzkoa), garai bateko IES Zamalbide BHIaren instalazioetan dagoen Tknika zentroan.

Tknika zentroaren funtzioaren berri eman digute Jose Luis Fernandez Maurek, Samuel Triguero eta Jon Labakak. Haien esanetan: “berrikuntza bat sortzen den unetik, enpresetara Lanbide Heziketako ikastetxearen bidetik iristen den arteko epea murriztu dadin lortzea da Tknikaren funtzio nagusia”. Orain arte epe hori luzea, “oso luzea” izan da. “Azken batean, berrikuntzak, oraindik berrikuntza izaten jarraitu behar du eskolara iristen denean. Ez daitezela hamar urte pasa ikasleei azalzerako. Horixe litzateke Tknikaren lanetako bat”, azaldu digute.



Jose Luis Fernandez Maure, Samuel Triguero eta Jon Labaka.

Lanbide Heziketa Zentroek beti izan dute ezaugarri zehatz bat: oso lotuta egon dira beren ingurura eta inguruan dituzten enpresetara. Ez da berria Lanbide Heziketako ikastetxe bat aldameneko enpresarekin lanean ari dela, edo proiektu bat garatzen dabilela esatea. Horrek esan nahi du, jatorrizko beren lana formazioa eskaintzea den arren, askotan ikastetxeak proiektuak garatzen aritu direla, beren erara. Baina une batean jauzia eman nahi izan zen, jakinmin horri erantzuna emateko urratsa eman eta hortik sortu zen Tknika Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroa.

Norabide horretan, Tknikaren lana “ikastetxeak berrikuntza proiektuetan koordinatzea” izango litzateke. “Esaterako Lanbide Heziketako ikastetxe batek, enpresa batekin duen harremanaren bitartez, berrikuntza bat sortu duela

ikusten duenean, proiektua aurkeztu dezake Tknikan. Hemen proiektu hori baloratu egiten da. Berrikuntza proiektua dela iruditzen bazaigu aurrera egingo du. Hala iruditzen ez bazaigu, berriz, bidean geratzen da”.

Hainbat arlotako proiektuak –teknologiakoak, e-learning mailakoak, ICT Informazioa eta Komunikazio Teknologien alorrekoak, prestakuntzari dagozkionak– aurkezten dituzte Lanbide Heziketako ikastetxeetatik. “Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak biltzen dira Tknikan. Ikaslan (Ikastetxe publikoak), Helte (Ikastetxe konzertatuak) eta IZEA (Ikastetxe pribatuak). Guztiak koordinatzen ditu Tknikak.

### Bi urteko lanketa

Bildutako lan horiek guztiak ebaluatu egiten dituzte, eta ebaluazio horren arabera egingo dute aurrera edo

atzera. Aurrera egiten duten lanekin eman beharreko hurrengo urratsa “proiektuekin lan egitea da”, azaldu digute. “Lanbide Heziketako irakasle talde batek egingo du lan proiektuaren inguruan”. Irakasle talde hori espezialitate jakin batekoa izaten da, proiektuari dagokion espezialitatekoa, eta bi egunez aritzen dira Tknikan lanean. Gainerako egunak, Lanbide Heziketako beren ikastetxeetan egiten dituztela azaldu dute Tknikako kideek.

Irakasle talde espezializatu horrek, bat, bi edo hiru urte pasatuko ditu proiektua lantzen. “Bada, agian, hiru urte iraun dezakeen baten bat, baina saiatzen gara bi urteko epea betetzen”, esan digute. “Berrikuntza den mementutik, berrikuntza izaten jarrai dezan”, nabarmendu dute.

Bi urteren ostean, proiektuarekin amaitzen dutenean, materialak eta beharrezkoak diren guztiak prestatzen dituzte ondoren ikastetxera eramateko. Jarraian, Tknikan proiektua lantzen aritu diren irakasleek, gainerako irakasleak formatuko dituzte ikastetxean. “Beraz, Tknikan sortzen den materiala zuzenean heltzen zaie ikasleei. Ikasleei buruz ari garenean, lanbide heziketako goi eta erdi mailako ikasleei buruz ari gara, baina baita ere etengabeko irakaskuntzako ikasleei buruz edota langabezian dauden ikasleei buruz edota enpresetan ari diren langileei eta ikasleei buruz. Horixe da, egiten dugun lana, labur-labur esanda”. Azken batean, Tknikarentzat garrantzitsuena ikastetxeentzako erramienta bat izatea da.

## Proiektu motak

Lanbide Heziketako ikastetxeetatik Tknikara ailegatzen diren proiektuak askotarikoak izaten dira. Azken urteetan, Tknikaren datuen arabera,

makina erramintaren alorreko bost proiektu jorratu dira, soldadurako bi, automatizazioko beste bost, energia berriztagarrien alorreko hiru proiektu, automozioiko bat, arte grafikoetako beste bat, telekomunikazioetako bi, eta ekintzailetasunaren inguruko beste bat. “Badira, era berean, gestioaren kudeaketa lantzen duten proiektu batzuk ere. Kudeaketa eta berrikuntza uztartzen dituzte proiektuek; sarean lan egitea, esaterako”.

Eta formazioan, adibidez, orain proiektu eleanitza lantzer ari dira Tknikan. Eta Eleanitza esaten denean esan nahi da, Lanbide Heziketako zenbait ikastetxek erabaki dutela eskolak ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz ematea. Horretarako, irakasleak formatu behar dira. Besteak beste, Tknikak ingeleza ikasteko aukera eskaintzen die; kanpora joateko, udan atzerian egonaldiak egiteko... diru-laguntzak ere izaten dira.

Hori guztia garatzeko, baina, ez da nahikoa ideia bat izatea. Azpiegitura handia behar da, eta une honetan 25 lagun ari dira Tknikan. “Hemen garrantzia handia ematen zaio 25 lagun ho-



rien formakuntzari”, diote “Eta formakuntza, batez ere, berrikuntzaren ingurukoa izaten da”. Hori dela eta, Tknikako lan taldeak berrikuntzaren inguruko hainbat ikastaro jasotzen ditu urtean zehar. Baina ez hori bakarrik. Aurrerago zabalago landuko den Berrikuntzarako Kultura ezartzeko lanean ari dira Tknikan. “Ez dadila bakarrik izan bi neuronak txoke egin, eta ideia bat sortzea. Baizik eta kulturaren inguruan ideiak errazago sortzen direla ohar-tzea”, adierazi du. “Gai horren inguruan saiatzen ari gara, batez ere, zinketa moduko zerbitzua izaten. Esan nahi dut, bai enpresekin, bai teknologiko ikerkuntza zentruekin, hemen go zein atzerriko unibertsitateekin... harremanetan egoten”.





## Nazioarteko programa

**“Berrikuntzaren inguruan atzerrian zein saltsa dagoen ikustea. Horixe da, bereziki nire eginbeharra”, azaldu digu Maurek. Nazioartean aliantzak sortzeko lan egiten dabil Tknika. “Gure helburua nazioartean indarrean dauden berrikuntza horien berri izatea da, eta berrikuntza horiek gurean ere eragina izan dezaten lan egitea”. Azken batean, aliatuak topatzea da gure eginbeharra, eta aurten ehuneko ehun ariko gara lan horretan.**



Jendea hona etortzen denean, eta Tknikaren aurkezpena ikusten dutenean sistemarekin liluratuta geratzen dira”, adierazi du. Nazioarteko programaren arduradunaren ustez, kanpotik etortzen direnak oso sistema indartsua dela ohartzen dira, eta konturatzen dira oso interesgarria izango litzatekeela antzerako egiturak herri bakoitzean sortzea eta, norik daki, etorkizun hurbilean elkarlanerako guneak sortzea. “Horregatik, berrikuntzen transferentzien proiektu bat aurkeztu nahi dugu European. Hemendik sistemak transferitu, baina, era berean, leku guztietan ideia berriak sortzeko aukera eskaini eta elkar trukerako laguntza eman”.

Tknikaren kontzeptua Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentro bezala, berezia dela azaldu digute. Nazioartean ez dago horrelako erreferentziarik eta bisita ugari jasotzen dituzte. “Oro har, bisitan etortzen direnak, oso gustura joaten dira. Ideiak gustatu egiten zaizkie, harrিতuta joaten dira... Eta askok esaten digute gurea bezalako zentru bat izan nahi dutela euren herrialde-

etan. Eta horrek noski, aurrea egiten laguntzen du”.

Nazioartean egon badaude unibertsitateak, ikerketa zentroak, teknologia zentroak... Agian proiektuen maila teknologiarik dagozkionez edo patente kopuruari dagokionez, Tknika baino indartsuagoak direnak. Ezberdintasuna zein den azaldu digu Labakak: “Herrialde horietan enpresa handiak iristen dira goi mailako teknologia zentro horietara, baina ikastetxeak eta enpresa txikiak ez dira horra iristen, ezin dituzte berrikuntza horiek baliatu. Eta horixe da guk hemen egiten duguna, erdiko leku horretan aritzen da Tknika. Berrikuntza horiek, patente horiek, merkatura ailegatzen diren gauza berriak... antzematea da gure lana. Ondoren, ahalik eta lasterren, enpresa txikietara eraman ahal izateko. Beti ere, Lanbide Heziketako ikastetxeen bidez”

Besteak beste, hori da beste herrialdeetatik izaten dituzten bisitei gustatzen zaiena, eta bereziki, hezikuntzako

jendeari. “Horixe da guk behar duguna”, esaten diete Tknikako arduradunari. “Tknika berrikuntza zentro berezia dela diogunean horregatik esaten dugu, ez nazioartean horrelakoak ez daudelako. Egon badaude, eta mordo bat. Baina ez zuzenean, gu bezala, Lanbide Heziketari begira lanean ari direnak”, gaineratu dute.

### Proiektu motak

Aipatu bezala, ikastetxeekin ezezik enprekin ere badu harremana Tknikak. Eta ez, soilik, nazioartean. “Hemengo enpresetatik ere bisita mordoak jasotzen dugu”. Izan ere, Tknikan mar txan daukaten lanerako sistema bera nahiko berritzailea da. “Zenbait tailetan, esaterako, oso material garestia dago”, azaldu digute. “Material hori beharrezkoa da irakasleak trebatzeko, baina garestia da oso. Nondik ateratzen dugu material hori? Bada, batzuetan enprekin negoziatzen aritzen gara”. Zenbaitetan enpresetatik ekarritako materiala erabiltzen dute Tknikan. Eta ondoren, trukean, Tknikak bere langileak trebatzeko lekua eskaintzen die enpresei. “Batzuetan hona etorri eta ikastaroak ematen dituzte bertan, beste zenbaitetan guk erabiltzen dugu enpresetako materiala”, azaldu du. “Egia ere bada enpresa horiek interes berezia dutela Tknikan beraien materialekin lan egiteko. Izan ere, ikastetxe ezberdinetako irakasle mordoak pasatzen da hemendik eta material hori ikusi eta interesgarria iruditzen bazaie, gero, agian, euren eskoletara eraman nahi izango dute”, gaineratu du.

## Berrikuntzarako kultura

**Pentsatzeko eta ekiteko modu bati deitzen zaio berrikuntzarako kultura. Hau da, erakunde baten funtzionamenduan eta eraginkortasunean hobekuntzat ekarriko dituzten ideiak eta aldaketak sustatzeko, onartzeko eta bultzateko joera izango duten baloreak, eta jarrerak sortzen, garatzen eta ezartzen dituen pentsatzeko eta ekiteko modu bat da. Nahiz eta modu horrek haustura ekarri tradiziozko beste zenbait moldeekin. Horixe landu nahian dabilta Tknikan, horixe bultzatu nahian.**



Tknikan garatzen ari diren berrikuntzaren kudeaketa ereduari buruz hitz egin digu Samuel Triguero Alvarez kudeaketa berritzeko arloko koordinatzaileak. “Tknika martxan jarri zenetik, gure helburuetako bat berrikuntzari mesede egitea da. Beti ere, espezialitate guztietako heziketa zentroei begira”, azaldu du. Baina nola egiten da hori? Beharrezkoa da eredu bat diseinatzea eta gauzak egiteko modu bat ezartzea.

Eredu horren baitan bi atal bereizten dituzte Tknikan: “Atal bat, errutinekido lan egiteko dugun moduarekin dago lotuta; esaterako, zaintzak egiteko errutina batzuk dituzte ezarrita Tknikan. Interesatzen zaien alor bakoitzean gertatzen ari denaren inguruan jakinaren gainean egotea beharrezkoa dute, eta hori modu sistematikoan egitea ahalbidetzen dien prozesu bat dute ezarrita. Era berean, Tknikan garatzen diren proiektuak aukeratzeko beste

hainbat errutina dituzte ezarrita: zein irizpide ditugun horiek aukeratzeko, nola baloratzen ditugun, zein fasetan garatzen den... Eta bestetik, barneko errutinak ere baditugu, edozein erakundetan ohikoagoak diren prozesuak.

Bigarren atala, kulturari dagokiona da: kultura, klima edo testuingurua deitzen diote horri. “Izan ere, guretzat hainbat errutina izateak, soilik, ez du bermatzen emaitzak izango ditugunik. Izan ere, emaitza horiek, gehienetan, jendearen jarreraren araberakoak izaten baitira, konpromisoaren araberakoak”, azaldu du Triguero. “Tknikan saiatu gara testuinguru jakin batean berrikuntzak modu sistematikoan sortzeko lagungarriak izan daitezkeen faktoreak ikertzen eta identifikatzen”. Azken batean, galdera bati erantzuten saiatu dira: Nola sortu berrikuntzarako klima edo testuinguru hori? Hainbat

faktore aztertu dituzte Tknikan eta horiei lotutako ekintza zehatzekin Kultura Plana deitu diotena osatu dute. “Ideia horiek lantzen baditugu eta ekintza horiek guztiak burutzen baditugu, apurka-apurka, lehen aipatutako klima edo testuingurua lortuko dugu” dio.

### Tknikatik sistema osora

Berrikuntzaren kultura horri lotuta, Jon Labaka teknologien alorreko arduradunaren ustez, alde handia dago prozesu baten, sistemaren eta berrikuntza kulturaren artean: “Guk prozesu bat diseinatu dezakegu proiektuen aukeraketa egiteko. Martxan dago eta mundu osoak daki zer egin behar duen bere proiektuak aurrera egin ahal izateko. Baina horrek ez digu ziurtatuko, proiektu horiek berritzaileak, ausartak eta kalitatezkoak izango direnik... Hor dago gauzak martxan jartzeko aukera ematen dizun prozesu baten eta berritzaile izateko aukera ematen dizun jarrera baten arteko ezberdintasuna”.

Hala ere, ez da erraza klima hori zabaltea. Hasiera batean, Tknikako laguntzat dago pentsatua, baina, Tknikako langileek lanbide heziketako ikastetxeetako irakasleekin egiten dute lan hainbat proiektutan. Beraz, ikastetxeetatik datozen irakasleak klima edo testuinguru horretan murgiltzen saiatzen da Tknika. “Ondoren, irakasle horiei dagokie proiektuaren nondik norakoekin batera, berrikuntzarako kultura hori ere ikastetxeko gainerako lankideei helaraztea”, diote.



## Ekintzailetasuna

**Hezkuntzan, enpresetan eta gizarte-an oro har, gero eta gehiago erabiltzen den terminoa da ekintzailetasunarena. Baina zer da ekintzailea izatea? Ekintzaile deitzen zaio aukera bat begiz jo eta berau martxan jartzeko beharrezko baliabideak antolatzeke gai den pertsonari.**

Ohikoa da, ekintzaile eta ekintzailetasun kontzeptuak enpresari lotuta erabiltzea: hots, enpresa bat sortzen duen pertsonari edo bere kabuz proiektu bat abiatzen duen pertsonari ekintzaile deitzea. Ez gara ekintzaile izango enpresa bat eratzeagatik soilik, eta ekintzaile izateko ez dugu zertan enpresa bat sortu behar. Hala ere, Lanbide Heziketaren alorrean zenbait ikasleek bide horri heltzea erabakitzen dute; dagoeneko martxan dagoen enpresa batera lanera joan beharrean, bere enpresa erabiltzen dute. Eta bide hori zailtasunez beteta egoten denez, laguntza behar izaten dute sarritan. Babes hori eskaintzea du xede *Urrats bat* programak.

Lanbide Heziketako Ikastetxeak, eta horietako ikasleak garrantzitsuak dira Tknikarentzat. Horregatik, lehen aipatutako proiektuak lantzeaz gain, Tknikak laguntza eskaintzen die Lanbide Heziketako ikasle ohiei beren enpresa proiektua garatzeko. Horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako eta Eten-gabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak bultzatzen duen *Urrats bat* programa koordinatzen du.



### Urrats bat

Duela urte batzuk programa pilotu gisa jarri zen martxan *Urrats bat* proiektua. Labakaren hitzetan, lehenengo urteetan esperientzia gutxi eta zailtasun asko izan ziren. Besteak beste, ikasle batek, ikasketak bukatu bezain laster, ez duelako enpresa bat sortu ahal izateko adina esperientzia. Orduan, ikastetxeak proiektuak gauzatu ahal izateko baliabideak jartzen hasi ziren. “Azken batean enpresa bat sortzerakoan gastu batzuk izaten dira: leku egoki bat, alokairua eta ordenagailuak, esaterako. Urtebetez ikastetxeak eskaintzen zien hori guztia. Baita aholkularitza ere, irakaslearen laguntza, harremanak...”

Horrela jaio zen *Urrats bat* programa, eta hasieran bost ikastetxek jarri zuten martxan. Ondoren, 2005ean Tknika sortu zenean, jauzi txiki bat eman zuen proiektuak. “Egun 40 ikastetxe dira *Urrats bat* proiektu horretan lanean ari direnak”, azaldu digu.

Guztira, 130 enpresa dira ikasleekin batera sortu direnak ibilbide horretan.

“Taz azterketa bat egin zen horietatik guztietatik martxan zenbatak jarraitzen zuten ikusteko, eta 90etik gora daude oraindik martxan. Datuak oso politak dira”.

### Jarrera kontua

Programa honek, Labakaren hitzetan, badu beste kutsu bat ere. “Gela bateko bi ikasleek enpresa bat sortzeak eragina du ez soilik bi pertsona horiengan, baita inguruko jendearengan ere. Beti esan dugu ikasleek, ausardia eta gauzak egiteko gogoia dutela, eta proiektu horrek, neurri batean lagundu egiten die”

Ikasle horiengana iristeko sentsibilizazio lan handia egiten dute Tknikan. Ezin da gela batera joan eta huts hutsean enpresa bat nork sortu nahi duen galdetu. Aurretik urrats batzuk daude: jendeari enpresa bat sortzea zer den azaldu behar zaio, zein laguntza dau-den. Ondoren, giro horretan, ikasle batek beharbada erabakiko ez dela unea enpresa bat sortzeko, edo ez duela ideiarik. Baina hala eta guztiz ere, Labakak nabarmendu duenez, enpresa mundura joaten denean izango du beharrezko txispa hori: “azken batean, enpresa barruan ere ekintzaileak behar dira. Ekintzailea ez da soilik bere enpresa sortzen duena, baizik eta bere lan esparruan ekarpenak egiteko prest dagoena, jarrera kontua da.”

Hausnarketa egiten ari dira. Aurrera begira, ikastetxe barruan normaltasunez funtzionatuko duen proiektu bat izatea nahi dute, baita ikastetxe guztietara zabaltzea ere.

# itziar plazaola

## *ELKARRIZKETA*

Genevako Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea eta ikerlaria.

“Hizkuntza gutxiagotuen kasuan, indartu egin beharko litzateke ahozkotasuneko hainbat genero era sistematikoan lantzeko jarrera.”





-3.200 MOINETAN 09

2009ko ap

# itziar plazaola

E

“Jabetzen ari gara ahozko hizkuntzan benetako baldintza on batzuk lortzeko ez dela nahikoa ahozko ekoizpen egoeretan ibiltzea. Herri batzuetan, azken hamar urteetan edo, gai horri heldu zaio; hau da, jabetu dira hezkuntzan ez dela lanketa idatzia soilik egin behar, ahozkoa ere landu beharreko zerbait dela”

Villabonako (Gipuzkoa) ikastolan hasi zen irakasle lanetan, eta gaur egun Genevan (Suitza) dihardu. 1985ean joan zen hara tesia egitera, eta han geratu zen lanean. Pasa den uztailan Hik Hasi Udako Topaketan Mondragon Unibertsitateko MIKER taldeak antolatu zuen “Ahozko hizkuntza lantzen: Haur Hezkuntzan hasi eta Unibertsitateraino” ikastaroan parte hartu zuen. Itziarren hitzaldia “Nola lagun dezake irakaslearen berbaldiak ikaslearen ikaskuntzan eta ekoizpenean?” izan zen. Genevako Hezkuntza Zientzien Fakultatean (Sciences de l'Éducation) ari da gaur egun. Jean-Paul Bronckart irakaslearekin hasi zen tesia egiten, eta, ondoren, han geratu zen ikerketa lanetan.



## Zer irakasten duzu Genevako Hezkuntza Zientzien Fakultatean?

Hizkuntzen didaktika da nire arloa, zentzu zabalean. Hasieran ama hizkuntzarena zen gai nagusia, eta, ondoren, bigarren hizkuntzen didaktikaz aritu nintzen.

## Testu generoen lanketan arituzara.

Bronckart-ekin egindako tesia horri buruzkoa izan zen. Geneven, 1985ean, testu generoen lehenengo ereduari forma eman zioten; hau da, diskurtso ekoizpenaren ereduari. Nik neuk, eredu horri eutsiz, euskal testuen azterketari ekin nion. Horrela, hiru genero aztertu nituen: narrazioa, ahozko elkarrizketa edo solasa eta diskurtso teorikoa.

Hainbat egilerekin batera euskal testuen azterketaz egindako lanen bilduma Erein-ek argitaratutako liburuan aurki daiteke, *Itziar Plazaola eta Maria Pilar Alonso Fourcade. Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea. 2007.*

## Ahazkotasuna ere lantzen duzu, ez testu idatzia soilik.

Ahazkotasuna geroago agertu den arazoa da. Eta ez Euskal Herrian soilik, nahiko orokorra da. Irakaskuntzan ere arazo gisa ageri da, jabetu baikara ahozko hizkuntzan benetako baldintza on batzuk lortzeko ez dela nahikoa ahozko ekoizpen egoeretan ibiltzea. Herri batzuetan, azken hamar urteetan edo, gai horri heldu zaio; hau da, jabetu dira hezkuntzan ez dela lanketa idatzia soilik egin behar, ahozkoa ere landu beharreko zerbait dela.

## Zure tesian solasa aztertu zenuela esan duzu.

Bai, hala da. Baina orduan ez genituen benetako solasak grabatu eta landu. Filmetako elkarrizketak hartu eta aztertzen genituen. Ez geunden oraindik benetako ahozko azterketa egiteko prestatuta, batez ere, ahozko adierazpen ez-formala aztertzeko.

Giza zientzia batzuetan, soziologian batez ere, elkarrizketaren ikerketa egin da. Gai horretan jarri dute arreta, alegia, ahozkotasanaren ezaugarriak zein diren ez dugula ezagutzen ohartu dira. Beti idatzizkoan ezagutzen ditugun eredu horiekin aritu izan gara, ahozkoan horrelako zerbait izango delakoan. Baina benetako azterketa, egoeraz egoera nola sortzen den, hitzun bat baino gehiago ari direnean batez ere, beranduago etorri da hizkuntza zientzietara. Eta irakaskuntzara, berriz, geroago iritsi da hori guztia.

## Gela barruan ahozkotasuna nola erabiltzen den aztertu duzue, ezta?

Ahozkotasuna, testu idatzia lantzen den moduan landu behar dela esan dezakegu. Era berean, azterketa idatziak ez digu ahozkotasanari buruz behar adinako informaziorik eskaintzen.

Ahokora beste bide batetik iritsi naiz ni. Didaktika soiletik baino helduen irakaskuntzatik heldu naiz. Helduen prestakuntzan ari naiz azken urteetan. Lanaren azterketa eginez batez ere. Hori, hemen gutxi landuta dagoen esparrua da.

## Zer esan nahi du lanaren azterketak?

Lanbide guztien lanaren azterketa interesgarria bada ere, irakaslearen lana zertan datzan interesatzen zaigu guri. Irakaslearen zeregina lan moduan ikustea. Hori guztia mundu frankofonoan asko lantzen den zerbait da; besteak beste, Ergonomia Kognitiboan.

Niri gelara sartzeko eta gelan sortzen den jarduera aztertzeko interesatzen zait. Gelan sartu aurretik ahozkoa nola landu behar den ez, baizik eta gelan zer



gertatzen ari den ezagutzea eta hortik abiatzea. Irakasleak lana nola egiten duen jasotzea. Jarduera hori behatzea eta aztertzeko oso garrantzitsua da.

## Askok aztertu al duzue gelako jarduera hori?

Bai. Irakas objektua ikusten baino, jarduera bere osotasunean ikusten saiatzea komeni da. Pedagogiaren eta didaktikaren artean egon diren kontrajartzeak, agian, horrela gaindi litezke. Hau da, osotasunean aztertuz eta irakasle jarduera zein den kontuan hartuz. Adibidez, egin beharrak zein diren eta egile kolektiboak nola planteatzen dituen kontuan hartuz, ez irakasle bakoitza bere aldetik; alegia, ataza baten inguruan nola erantzuten duten denek. Niri jardueraren osagai nagusi gisa interesatzen zait ahozkoa: irakaslearen berbaldea, zeregitzen den ahozkotasanaren bidez irakasle lana antolatzea...

## Nola jokatzeko da praktikan?

Unibertsala izan litekeen zerbait da. Bizi garen Mendebalde honetan, behintzat, jokaera nagusia hau da: irakasleak gelan sartzen da eta hark esaten die ikasleei zer egitera doazen. Hasiarako sekuentzia bakarriketa bat da,

lana antolatzea helburu duena: nola arituko diren elkarrekin, zer hartu behar duten, zer den bidezko, antolaketak horren azpian dagoen akordioa eta abar. Jarduera hori da niri aztertzeko interesatzen zaidana.

## Hori orokorrean, baina ahozkotasuna landu beharreko objektu gisa ere hartzen da.

Hori da. Askok hortik jotzen dute. Pentsatzen dut hori ere egin beharrekoa dela. Komunikazio korrante batzuen interpretazio okerra zuzentzen ari gara orain. Ulertu da hitz egiten utzi behar zaiela ikasleei, besterik gabe, inongo pautarik eman gabe. Zer gai lantzen diren eta nola irakasten den kontuan hartu gabe. Horrela jokatu, oso murriztak izan daitezke elkarrizketak.

Hainbat genero modu sistemati-koan lantzeko nola bideratu behar diren landu dugu guk. Prozesu hori nola-bait kontrolatu beharra dago, gertatzen denaren jarraipena egin beharra dago.

Garai batean komunikatzea aditzera zela esaten bazen, ahozkotasuna behar den moduan lantzeko hori ez dela nahikoa ohartu gara. Horregatik, ahozkoa objektu gisa ere tratatzeak



bere  
arrazoiak ditu.

Dena den, curriculumaren beste ikasgaietan nola ari garen lanean da nik gehien landu dudana: nola ari den irakaslea Matematikan, Zientzietan... Zer baldintza izan ditzakeen, irakaslearen ekitaldiak nolakoak diren, ikasleak nola jokatzeko duen bai gaia eta bai hizkuntza hobetu ditzan... Kontuan hartu behar da, bestalde, Europako alde gehienetan ez daudela hizkuntza bakarreko ikasleak. Askotan, hizkuntza bereko ikasleak ere ez daude gela berean. Genevako etorkinen kopurua, adibidez, %40tik gorakoa da.

### **Orduan, hizkuntzen trataera bere osotasunean hartzea komeni da.**

Irakaslea ikasleekin batera ari deanean, une horretan, ezagupenen formulazioa, negoziazioa eta bilakaera sortzen dira. Ikuspegi horrekin irakas-kuntza bere osotasunean lantzen da.

### **Eta hizkuntza gutxiagotua bada?**

Orduan eta gehiago landu beharko lirakeke bai ahozko genero formalak, eta baita ez-formalak ere, objektu edo helburu gisa landu beharko lirakeke. Eskola hizkuntza ama hizkuntza ez bada, garbi dago hainbat genero mota landu behar direla. Nikuste dut hizkuntza gutxiagotuen kasuan, indartu egin beharko litzatekeela halako era sistematikoan lantzeko jarrera.

### **Nola lortu curriculumeko beste ikasgaietako irakasleak inplikatzeko?**

Nola eragin ikasgai guztietan hizkuntza zaintzea, ezta? Horrek garrantzia du. Har ditzagun zientziak: Matematika, Kimika... Ikasgai bakoitzak bere hizkuntza mota du, ez terminolo-

gian soilik, hori izaten da identifikatzen errazena; baita adierazpena, arrazonamendua... Badira, beraz, hainbat diskurtso mota genero horren barruan.

Demagun, gaia lantzean hizkuntzari ere kasu egiten diotela irakasleek. Sortzen zaigun galdera honako hau da: zer egin behar dute hizkuntzetako irakasleek? Hortik urruti gaude, baina hala balitz, beste ikasgaietan egiten dena jaso egin beharko lukete hizkuntza irakasleek, eta hizkuntza ildo indartu beharko lukete.

### **Berriro gai nagusiari helduz, ahozkotasuna ongi lantzeko, zein dira gako nagusiak?**

Hizkuntza ongi erabiltzeko ahozkotasuna landu egin behar da. Nire ustez, ahozkotasuna lantzeko gako nagusia eta kontuan hartu beharrekoa hau da: ikaslea zer baldintzatan eta egoeratan jartzen dugu? Ikaslea diodanean, ikasle bakoitzaz ari naiz. Alegia, baduen ekoizteko aukerarik, baduen aurkezpenak egiteko denborarik, entzuten al diogun ikasleari, erantzuten al diogun...

Hor dago gakoa. Elkarrekintzarik badagoen edo ez. Eta ikasle bakoitza dagoen egoeratik aurrera eramaten saiatzen garen edo ez.

Hori litzateke ideia nagusia. Irakasle-geaiekin ere horretan aritzen gara: filmazioak egin, ikusi, jardura nolako izan den aztertu, zer gertatu den hausnartu, nola hobe litekeen hitz egin...

Hainbeste gauza gertatzen da gela batean, hain konplexua da irakaskuntza, oso zaila da dituen alderdi guztiei heltzea.

Dena den, hizkuntzaz ari bagara, eta hizkuntzaren jabeakuntzaz ari bagara, ikasleen ikuspuntutik, haien errealitateetik abiatu behar dugu. Saio batean, bestean eta hurrengoan honako hau behatu eta hausnartu behar dugu: ikasleak hitz egiteko aukera izan duen edo ez, zer esana izan duen edo ez... Hori da ahozkotasunaren gako nagusia.

Irakasle asko eta asko beren grabazioak entzun edo ikusitakoan harrিতuta geratzen dira zenbat hitz egiten duten

**“Niri gelara sartzeko eta gelan sortzen den jardura aztertzea interesatzen zait. Gelan sartu aurretik ahozkoa nola landu behar den ez, baizik eta gelan zer gertatzen ari den ezagutzea eta hortik abiatzea. Irakasleak lana nola egiten duen jasotzea. Jardura hori behatzea eta aztertzea oso garrantzitsua da”**

**E**

ohartuta: “zenbat hitz egiten dudan” esaten dute.

### **Hezitzaileen prestakuntza modu berria planteatzen duzu zuk.**

Bai. Nire ustez, helduen prestakuntzaile askoren modura, prestakuntza ez da jakintsu batek esan dezakeena kontuan hartzea eta kito. Ez. Nire iritziz, prestakuntza, bitarteko metodologiko baten bidez egiten ari garena behatzea eta horri buruz hausnartzea litzateke. Prestakuntza norberaren lana egiteko eraren grabazioa eta hausnarketa da.

Ikerketa askok aditzera eman duteenez, irakasleek ez dakite, benetan, nola irakasten duten. Grabazioak egitean eta horiek ikustean eta aztertzean jabetzen gara.

### **Hori nahikoa al da?**

Ahokotasunari buruzko hainbat ikerketa daude, eta horien ondorioak eta behaketak ere prestakuntzarako bitarteko dira.

### **Hori guztia taldean egitea ez al da zaila?**

Hasieran talde txikian egin behar da. Inork ez du atsegin aztertua izatea. Dena den, hobetzeko bidea dela jakinda, prest egon beharko genuke taldean aritzeko. Egokiena ikastetxeko proiektuan jasotzea litzateke. Alegia, lantal-

dea edo lanbidea hobetzea, ez pertsona bakoitzaren lana soilik. Azken finean, lanbide batekoak gara eta taldean egin behar dugu lan. Horrela, emaitza taldearena izango da, proiektuarena.

### **Erroreari eta horren tratamenduari buruz idatzi duzu.**

Ez dut uste asko egin dudarik horri buruz, baina ildo hori nahiko argituta dagoela pentsatzen dut. Hizkuntzak eskuratzearen gaineko ikerketa ugari egin dira, eta irizpide argiak ditugu. Alegia, ekoizpenean egindako erroreek adierazten dute hiztun bakoitzak sistema bat duela eta sistema hori aldatuz doala. Bere ama hizkuntzatik abiatuta, atzerriko hizkuntzarantz doanean, sistema aldatzen doa ikaslea. Une bakoitzean bere sisteman hainbat erregela dauzka. Erregela horiek ez dira erabat ikasten ari den hizkuntzarenak. Batzuk bere ama hizkuntzarenak dira, beste batzuk asmatutakoak edo ustezko erregelak, eta, pixkanaka, ikasten ari den hizkuntza horren erregelak antzematea izango da bere lana. Horrela, bada, memento orotan dauka bere sistema. Horregatik, hiztun bakoitzak egiten dituen erroreak bere sistemaren adierazleak direla pentsatzen da. Beraz, irakasle batentzat halako erroreak antzematea pista izan liteke ikaslea zein unetan dagoen ulertzeko.

### **Suitza lau hizkuntza lurraldez osatuta dago. Bakoitzak bere hizkuntza nagusia du. Zein da hizkuntzekiko dagoen trataera?**

Kantoi bakoitzak autonomia du hezkuntza garatzeko. Eta kantoi bakoitzean, hango hizkuntzaz gain, beste lurralde bateko hizkuntza irakatsi behar da (frankofonoan alemana, adibidez). Hori izaten da “atzerriko” lehen hizkuntza. Eta horrek barne kohesioan laguntzen du.

Dena den, han ere bada hizkuntza gatazka. Hainbat ekonomia eragilek ingelesa irakastea nahi dute atzerriko lehen hizkuntza gisa, eta, horretarako, eskola publikoan diru pribatua jartzeko prest daude. Horrek hezkuntza sistemaren zutabe garrantzitsua zaltzan jarri du, eta barne kohesioan ere eragin lezake.

### **Esan duzunez, etorkin asko dago Suitzan. Nola eskolatzen dira?**

Suitza frankofonoan italiar, espainiar, portugaldar eta albaniar komunitate handiak daude. Horiek eskolatzean ikasle bakoitzari auzoko eskola izendatzen zaio, eta, tarteka, harrera gelara ateratzen dira hango hizkuntza, eta ez soilik hizkuntza, indartzeko.

Horrez gain, hainbat saio egiten dira gainerako ikasle guztiek beste hizkuntzak ezagut ditzaten. Tailer modukoak egiten dira, ikasle etorkinen hizkuntzak entzuteko eta gutxiengo batekin ohitzeko.

Genevan, bestalde, lehen aipatutako etorkinen lau estatu hizkuntzak lantzeko irakasleak daude. Kotsulatuek finantzatzen dituzte irakasle horiek. Lehen, eskolaz kanpo irakasten bazuten ere, eskolara hurbiltzen joan dira. Orain, eskola barruan lantzen dira hizkuntzak, eta irakasle horiek lehen aipatu ditugun tailerrak antolatzen dituzte, etorkinen hizkuntza horien sarrera gisa.

### **Horrek guztiak irakasleen prestakuntza eskatzen du, ezta?**

Bai. Mirariak ez dira berez sortzen. Lana egin behar da, emaitzak lortu nahi badira behintzat.



# itziar plazaola

E

“**Ahokotasuna lantzeko gako nagusia eta kontuan hartu beharrekoa hauxe da: ikaslea zer baldintzatan eta egoeratan jartzen dugu? Ikaslea diodanean, ikasle bakoitzaz ari naiz. Alegia, baduen ekoizteko aukerarik, baduen aurkezpenak egiteko denborarik, entzuten al diogun ikasleari, erantzuten al diogun...**

”



## **Zer funtzio betetzen du Suitzako estatuak hezkuntzaren antolaketa?**

Lau hizkuntza lurralde dira, bakoitza bere hizkuntza ofizialarekin. Lurralde bakoitzeko kanto horien arteko akordioan oinarritzen da hezkuntza sistema. Kanto bakoitzak bere antolaketa propioa du, eta, gero, lauen artean adosten dute egitura orokorra. Antolaketa interkantonal dela esan dezakegu. Suitzak aspaldidanik du konfederazioaren egitura, eta gorabeherak egonik ere, badakite arazoak elkarrekin konpondu behar dituztela.

## **Hautapropa edo selektibitateak ba al dago Suitzan?**

Berez, ez dago. Dena den, derrigorrezko irakaskuntza amaitzean azterketak daude, eta emaitzen marra mugitu egiten dute gora edo behera, unibertsitatera zenbat joatea nahi duten kontuan hartuta. Nolabaiteko galbahea egiten da. Unibertsitate bakoitzak ere egiten du berea. Adibidez, Zuzenbidean edo Medikuntzan oso zorrotzak dira lehenengo urtean, eta, ondorioz, hautaketa handia egiten da, askok lehen ikasturtean bertan utzi egiten dituzte ikasketak.

## **Eta irakasle izateko?**

Irakaskuntzan, zehazki, praktike-tarako dagoen leku kopuruak markatzen du zenbatek ikas dezaketean. Genevan praktika asko egiten dira eskole-

tan. Praktika horiek egiteko plaza edukitzeak edo ez baldintzatzen du irakasle kopurua.

Askotan, lekurik ez dagoela-eta, praktikak gazteen klubetan eta abar egiten dituzte, dosierra hobetzeko asmoz eta hurrengo ikasturtean irakasle ikasketak egiteko.

## **Irakasle izateak ba al du prestigiorik?**

Genevan, adibidez, irakasle izateak prestigioa du. Ongi irabazten da eta hori adierazle bat da. Irakaskuntza, oro har, zailtzen ari dela esan liteke. Arazo berriak sortzen ari dira.

**Irakasle Elkartean ibilia naiz eta oso oroitzapen onak ditut. Iñaki Zubeldia eta Jesus Mari Mujika ziren orduan arduradunak. Eta haiekin, Maite Murua eta beste batzuk ere bai. Garai hartako gai nagusia lanean ari ziren titulurik gabeko irakasleentzat titulu eskuratzeko ikasketak jartzea izan zen. Oso emaitza onak eman zituen eta egite on gisa dut gogoan.**

# “Ikastetxeetatik abiatuta euskararen erabilera areagotzen”

## Hezkuntza arloko jardunaldia

Eguna: azaroak 6  
Ordua: goizeko 9:15  
Lekua: Donostian,  
Miramar Jauregian

### EGITARAUA

**9:15.** Sarrera ekitaldia. **Xabier Mendiguren** (Kontseiluko Idazkari Nagusia)

**9:30.** “Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta” liburuaren gakoak. **Arantxa Urbe** (Kontseiluko lantaldea)

**10:00.** Ikastolen Hizkuntz Proiektua. Planteamendu teoriko-praktikoa. **Irene Urbina** eta **Kristina Boan** (Ikastolen Elkarte)

**11:00.** Atsedenaldea.

**11:30.** Herri-mailan, esparru ezberdinetan eragiteko estrategiak:

- 11:30. Familia. **Iñaki Eizmendi** (Ebate)
- 12:00. Kirola. **Naia Inza** eta **Nerea Gonzalez** (Ttakun)
- 12:30. Astialdia. **Jaime Altuna** (Urtxintxa)

**13:00.** Hezkuntza-eragileen iritzia. Mahai-ingurua, **Kontseiluko hezkuntza bazkideekin**. (EHI, Kristau Eskola, EHIGE, Sortzen-Ikasbatuaz).

**13:30–15:30.** Bazkaltzeko tarte.

**15:30.** Euskararen erabilera tresna informatikoetan, (Blogak, Wikiak...). **Maite Goñi** (euskaljakintza.com)

**16:00.** Katalanera eskolako hizkuntza. Josep Vallcorba (Kataluniako Generalitateko “Llenguas i Entorn”eko zuzendariorde orokorra).

**17:00.** Hitzaldiaren ondorengo galde-erantzunak.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA

**Parte hartzea  
DOAKOA  
izango da**



Izen ematea

[kontseilua@kontseilua.org](mailto:kontseilua@kontseilua.org)

## *Ihintza* aldizkari digitala Usurbilgo Udarregi ikastolako ikasleak kazetari

*Duela urte batzuk, Usurbilgo Udarregi ikastolak IHINTZA izena zuen aldizkaria argitaratzen zuen, paper euskarrian. Azken urteetan, berriz, ez zuen ezer argitaratzen. Orain, prentsa lantegia abian jarri dute, eta izen bereko aldizkari digitala argitaratzen hasi dira.*

*“Argia” astekariak egin zien proposamena, eta ikastolak aukera aztertu, bideragarritasuna bilatu eta aurrera eramatea erabaki zuen. Ikasleek aldizkaria egiten duten bitartean kazetaritza lana ezagutzea da helburu nagusia.*

### **Elkarlana bideratzen**

Hasieran, “Argia”-ko kazetari bat joan zen ikus-entzunezko eta informatikako irakasleekin egitasmoa eta haren antolaketa partekatuz. Hiruren artean ikasleekin egin zitekeen plana diseinatu zuten.

Horrela, DBH-ko 3. mailako ikasle taldearen banaketa egin zen, egutegia prestatu zuten, kazetariaren egitekoa zein izango litzatekeen zehaztu zuten, ikasturtean zehar zer laguntza eskainiko lukeen erabaki zuten... Eta, horrela, aldizkariaren ideia bideratzen hasi ziren.

Hasieran, ikasleek saio bat egin zuten kazetariarekin. Alde batetik, hitzaldi bat antolatu zen, aldizkaria gauzatze-ko ikasleen egitekoa zein izango litzate-



Joxerra Oiarbide eta Nerea Zinkunegi irakasle arduradunak.

tekeen komentatzeko; hau da, ikasleek kazetari gisa zer lan egin beharko zuten aztertu eta erabaki zuten. Azken finean, helburua ikasleak kazetaritzaren sisteman jabetzen joatea zen: artikulua, berriak, erreportajeak, elkarrizketak... Nola egin, genero bakoitzaren ezaugarriak, epeak bete beharra...

### **Lau aldizkari argitaratzen dira ikasturtean**

Gelakideak bi taldetan banatu dituzte. Talde batek ikasturtearen lehenengo erdian (irailetik urtarrilera) lantzen du gaia, eta bi aldizkari argitaratzen ditu. Beste taldeak, berriz, bigarren erdian (otsailetik ekainera) beste bi aldizkari argitaratzen ditu.

Aldizkari horiek guztiak ikastolako web orrialdean zintzilikatuta daude, zehazki, [www.ibintza.com](http://www.ibintza.com) helbidean, nahi duenak ikus ditzan.

Han ikus daitekeenez, albisteak, erreportajeak, elkarrizketak... jasotzen dira. Ikasleek erabakitzen dute zer idatzi, irakasleen eta kazetariaren aholkuak entzun ondoren. Horren ondorioz, ikasleentzat interesgarriak diren gaiak lantzen dira.

### **DBH-ko 3. mailako ikasleek egina**

Programa 3. eta 4. mailakoentzat dago prestatua, ikasleek idazteko eta antolatzeko gutxiengo trebeziak behar baitituzte. Kazetariaren aholkuei jarraituta, trebatzen joan dira, teknikak ezagutu dituzte pixkanaka... Baina, esan bezala, oinarriko trebezia behar da. “Guk aldizkaria 3. mailara mugatu dugu, lehenik ere, ikus-entzunezko eta informatikako lantegiak maila horretan lantzen genituelako”, diote ikus-entzunezko Nerea Zinkunegi eta informatikako Joxerra Oiarbide irakasleek.



## Ikasle guztiek lantzen dute kazetaritza

Lantegi horiek ez dira libreak. Frantsesa ikasten ez duten DBH-ko 3. mailako ikasle guztiak aritzen dira bi lantegi horietan. Informatikako gelan, make-tatzen ikasten dute. Ikus-entzunezkoan, berriz, idatziak, grabazioak, filmaketak eta horien muntaketa egiten ikasten dute.

Talde bakoitzak hiru saio izaten ditu kazetariarekin:

1.- Hasierako hitzaldia: kazetaritzaren gaineko hainbat arau eta gomen-dio.

2.- Erredakzio bilera: gaiak zerrendatu, aldizkarian azalduko diren edukiak eta azala erabaki, lanak banatu...

3.- Itxierako bilera: egindako lanaren balorazioa egin eta aldizkaria itxi.

Horrez gain, zalantzak eta aholkuak posta elektronikoz bideratzen dituzte.

## Helburu nagusiak

Ikastetxearen aldizkaria lantzen laguntzea da xede nagusia, ondorengo helburu pedagogikoak bultzateko:

- Talde lanean aritzeko aukera, komunikazioa eta lankidetzaren lantzen laguntzeko. Bestalde, taldean helburu bakarra bilatzeak ikasleari bere lanaren garrantziaz jabetzen lagunduko dio, hartutako konpromisoak epearen barnean betetzeko, eta abar.

- Hainbat kazetari erregistro ezagutzea, elkarrizketen bidez ikaslea jendarekin harremanetan jartzea bultzateko.

- Interneteko informazioaren aukuraketa, ikaslearen sintesi eta analisi gaitasunak lantzen laguntzeko.

- Hizkuntzaren lanketa, euskara sendotzeko.

- Tresna informatikoen erabilera, aldizkaria lantzeko.



## Busturialdeko eskola txikiak Eskola txikien festa handia

Joan den maiatzaren 22an, bosgarrenez ospatu zuten Busturialdeko (Bizkaia) eskola txikiek euren jaia. Aurten Gaitegiz Arteagako Montorre eskolak izan du festa antolatzeko ardura, eta herriko plazan koplak kantatuz egin zieten ongi etorria Busturiko, Mundakako eta Muxikako eskola txikietako ikasleei.



Bosgarren jaia gagoz  
Hasteko zorian  
Aurten elkartzen gara  
Artia herrian

Edozer baino lehen  
Ondo etorri danok  
Ondo pasatu daigun  
Alkartu garenok

*Ai zapotxin  
Ez dago zeregin  
Eskola bako herri txikiekin*

Nerbioekin dardar  
Gu gagoz artega  
Jai antolatzailea  
Delako Arteaga

Honelako egunak  
Nahi doguz gehiago  
Eskolatik kanpo ta  
Klase gutxiago

*Ai zapotxin...*

Mundakako lagunak  
Hurbildu dira gaur  
Muxika ta Uzelai  
Artian hainbat haur

Hitz egiterakoan  
Hor dago ahoa  
Guk abestuko dogu  
Hor doa bertsoa

*Ai zapotxin...*

Gu Busturialdeko  
Ikasleak gara  
Urte honetan goaz  
Montorre eskolara

Montorrek prestatu du  
Jai bat nahiko gatza  
Denok egingo dugu  
Kanta eta dantza

*Ai zapotxin...*

Eskola eguna da  
Ez goaz gelara  
Neska-mutilak gaur  
Jolas eta algara

Ondo egongo gara gu  
Zuekin batera  
Ahalegindu gaitezen  
Ondo pasatzera

Kantuan eman zioten, beraz, hasiera Busturialdeko eskola txikien V. jaiari. Busturialdean lau eskolek dute "eskola txiki" izendapena: Mundakako Mundaka eskolak, Busturiko Uzelaik, Muxikako Urretxindorrek eta Gaitegiz Arteagako Montorrek, hain zuzen. Jose Luis Bardón Montorre eskolako zuzendariak azaldu duenez, lau eskola horietako hezkuntza komunitateko kideek hainbat ekimen bateratu bultzatzen dituzte urtean zehar. Eta horietako bat da urtero egiten duten festa.

Orotara, 300 ume baino gehiago dituzte lau eskoletan, eta hainbat ekintza antolatzen dituzte horiei zuzenduta. Bardónek azaldu duenez, ekintza horiek prestatzeko beharrezkoa da ikasleen adina kontuan hartzea, baita herri bakoitzak eskaintzen dituen aukerei egokitzera ere. “Hori aurrera eramateko irakasleen arteko koordinazioa da garrantzitsuena, baita zailena ere”.

Egiten dituzten ekimen horien guztien artean, Busturialdeko eskola txikiak elkarrekin antolatzen duten jaialdi horren garrantzia handia da. “Ezinbestekoa da gure eguneroko lana gizarteratzeko, baita gure herrietan dagoen bizitasuna nabarmentzeko ere”, dio Bardónek. Jaiaren garrantziaz jabetzeko “azken urteetan gure inguruan itxi diren eskoletako herriei begiratu besterik ez dago”, dio Montorre eskolako zuzendariak. Besteak beste, Arratzu, Belendiz, Santa Luzia, Axpe, Foru, Nabarniz, Sukarrieta, Ereño, Elantxobe, Ibarrangelu, Natxitua eta Ea geratu dira eskolarik gabe. Bardónek hitzetan, “eskolarik ez duen herriak, eguneroko bizitasunari dagokionez, asko galtzen du”. Horregatik, hauxe da beraien lelo nagusia: “Eskola txikiak zabalik, herri txikiak bizirik”.

Egun osoko festa antolatzen dute urtero, eta egitaraua oso korapilatsua ez bada ere, gauza mordo hartu behar izaten dute kontuan. Megafonia, publizitatea, pankartak, autobusak, trafikoa arazoak, baimenak, egitaraua, eguraldia, otorduak, umeen adina... “Lana eskatzen du, baina merezi duelakoan gaude”. Bardónek azaldu duenez, urteroa egitarau bertsua antolatzen dute. Lehenik eta behin, umei harrera egiten zaie eskolara banatuta. Ondoren, adinaren arabera antolatuta eta eskola guztiak nahasturik egingo diren musika saioen entseguak egiten dituzte. Eguerdia bueltan izaten dira musika eta dantza saioak. Denbora libre apur



baten ostean kalejiran joaten dira haurrak jolastokira, eta prestatutako jolasak amaitzean denok bazkaltzera. Arratsaldean denbora izaten dute nork bere olgeta edo solasaldiak egiteko. “Jaiari amaiera emateko biribilketa egiten dute urtero, Bernardo Atxagak, bereziki, eskola txikietarako idatzi zuen kantuarrekin eta guk asmatutako bertso batekin”, dio Bardónek. Ondoren, lekukoa pasatzen diote hurrengo eskolari. “Dagoeneko badugu datorren ikasturterako antolatzailea, Muxikako Urretxindorra eskola; soka ez da eten, eta segi dezala urte askoan”, amaitu du Bardónek.

Aurten ondorengo bertsoekin joan da lekukoa Arteagatik Muxikara:

Urretxindorran hasi genuen  
 erronka honen afera  
 gero Mundakan, baita Busturin  
 izan genuen bilera  
 ta azkenean etorri gara  
 herriko eskuin aldera  
 ba Montorreko topagunetik  
 bidearen hasiera,  
 poztasun handiz berriro ere  
 txanda Urretxindorrera  
 (Mutil koxkor bat)



Gure eskoletan dugu hainbat oztopo ta traba berrikuntzaren aldetik orain txikiak ez gara lauhun lagun Artian gaur batu garela zer ba? elkarrekin lau eskola hainbeste poza ta algaro gero ta hobeto gabiltz elkarren ondoan hara konturatu barik aurton bosgarren urtean bada ospatu gabe festa hau inoiz ez dezagun laga datorren urtean denok falta barik Muxikara datorren urtean denok falta barik Muxikara (Habanera)

## ARTAZIAK arte hezkuntzako taldea Irakatsi eta ikasi artelanen bidez

Duela bi urte hasi ziren ARTAZIAK izenarekin lanean. Maider Urrutia, Ana Revuelta eta Andrea Arrizabalaga dira. Dantza Garaiki-detik, Artearen Historiatik eta Arte Ederretatik datoz, hurrenez hurren. Sormenarekin harreman zuzena dute hirurek, eta hutsune batzuei erantzuteko sortu zuten taldea. Batetik, lan munduan murgildu zirenean arte hezitzaileen baldintza eskasak eza-gutu zituzten. Eta, bestalde, urteetan ikasi eta barneratutakoa euren proiektuen bidez landu nahi zuten. Horrek eraman zituen ARTAZIAK sortzera. Orain, Gasteizko Montehermoso kulturunean, Artiumen eta Bilboko Rekalde aretoan ari dira jo eta su ikasle eta hezitzaileekin lanean.

### Zer da, baina, arte hezkuntza?

Arrizabalagaren hitzetan, orain arte hezkuntza nola ulertu izan den aztertu behar da lehenik. “Urteetan, heziketa, transmititzen den zerbaite dela pentsatu izan da. Artearen kasuan, obra bat erakusten da, egilea nor den azaldu, data zehaztu... Informazioa eskaintzen da eta kito. Ez da ezer zalantzan jartzen”, azaldu du. ARTAZIAK ekimenaren abiapuntua, ordea, guztiz bestelakoa da. “Guk ez dugu artea Egia absolutu gisa ikusten. Ez zaigu iruditzen buruz ikasteko zerbaite denik. Guk artea kontakizun moduan ulertzen dugu, gizar-



Ana Revuelta, Maider Urrutia eta Andrea Arrizabalaga.

teko gaiet buruz hitz egiten ari zaigun zerbaite gisa”. Horregatik, ARTAZIAK taldeko kideek, ikaskuntzarako tresna gisa erabiltzen dituzte arte ekoizpenak. “Gauzak zalantzan jartzeko, egungo gaiak jorratzeko... Artearekin lotuta egon daitezkeen gaiak edo bestelakoak lantzeko. Artelanak horretarako tresna dira guretzat”.

Revueltaren hitzetan, arte ekoizpenak baliagarriak dira lan horretarako, beste begirada bat eskaintzen dutelako. “Adibidez, publizitatean emakumea beti modu jakin batean ikusten dugu. Argazki edo koadro batek emakumearen beste ikuspegi bat eman diezaguke”, azaldu du. “Horrek eramango gaitu gure izaera zalantzan jartzera, albokoari beste modu batean so egitera... Azken batean, kritikotasuna lantzerako. Zergatik, zergatik eta zergatik behin eta berriz galdetzerako”.

### Arte tresna gisa

Margolan bat norena den, zer urteetan egin dagoen eta zer izen duen jakin gabe ere etekina atera diezaiokegu. Horixe uste dute, behintzat, ARTAZIAK taldeko hiru kideek. Artelan bat koloreak, lanbideak, animaliak... lantzeko erabil daiteke. “Aurrean duzun lanetik abiatuta hainbat bide jorra ditzakezu, interpretazio ugari eman. Artelan baten aurrean aukera bat da garaia eta egilea ikastea”. Arrizabalagaren ustez aukera bat da, baina beste batzuk bezain baliagarriak. “Esaterako, lan hori aurre egiteko beste modu bat izango litzateke irudikatuta dagoen emakumeak zure amama gogorarazten dizunez, familia harremanei buruz hitz egitea”. Agian gazte talde batean gai hori lantzea beharrezkoa izan daitekeela uste du ARTAZIAK taldeko kideak.

ARTAZIAK taldearen ustez, irakas-

leek euren taldeen beharrak ezagutu behar dituzte, eta hortik aurrera artea tresna gisa erabiltzen hasi. Montehermoson, Rekalden eta Artiumen ikasleekin lan egiten du ARTAZIAKek. “Gure helburu nagusia proposatzen dugun ekimenari etekina ateratzea da. Horretarako, taldea nondik datorren, zer landu nahi dugun... ongi aztertu behar izaten dugu”, azaldu du Revueltak. Ekimen horiek parte hartzaileak izan daitezere saiatzzen dira. “Ez gara gu izango erakusketa edo artelanaren inguruan hitz egingo dugun bakarrik. Gure asmoa ez da astunak izatea, eta, horretarako, hainbat lantegi antolatzen ditugu.

### Hezitzaileentzat

Ikasleekin ez ezik edozein alorretako hezitzaileekin ere egiten du lan ARTAZIAK taldeak. “Une honetan Montehermoso kulturunean “Zentzua emanetz” izeneko programa daukagu martxan. Bi ordu inguruko saio horretan hezitzaileei tresnak ematen saiatzen gara, ondoren, euren nahi izanez gero, gaia euren kabuz landu ahal izateko. Hezitzaile bakoitzak tresna horiek bere testuinguruan erabiltzeko aukera izan dezaten saiatzen gara. Izan ere, kaleko hezitzaileak ere etortzen dira zenbaitetan. Lana museoa ez ezik, ikasgeletan edo nork bere txokotan egiteko aukera eman behar diegu”, azaldu du Arrizabalagak. Lehenik eta behin, irakasleek ziurtasuna izan dezaten, dossier bat ematen diete. Informazio osatua izan dezaten. Eta, ondoren, praktika txiki bat egiten dugu.

### Adibide bat

Flavio de Carvalho artista brasildarraren lan batekin egin zuten lantegia. 1960. urtean Brasiliaren inaugurazio egunean Carvahok jantzi berezi bat diseinatu zuen beretzat. Kalean paseatzen aritu zen, beti erreferente berberak dituen modernizazioa zalantzan jartze-





ko. Modernizatzea, Brasilen, Europaren antza hartzea zen garai hartan. Gona motz bat jantzi zuen eta hainbat argazki atera zituen.

“Hezitzaileei testuingurua azaltzen diegu, baina ez dago ikasleei guztia azaldu beharrik”, esan du Arrizabalagak. “Azken batean, oso arraro jantzita dagoen gizon bat ikusiko dute, eta barre egingo dute agian gona bat darimalako. Guk, orduan, barre zergatik egiten duten galdetuko diegu, eta hausnartzeko bidea emango digu. Esaterako, nerabeen artean, modari buruz, markei buruz... hitz egiteko balio dezake. Moda hori nork ezartzen duen pentsatuz, adibidez”.

Baina lan horrek berak beste gai bat lantzeko ere balio dezake. “Aurreko batean etorkin talde batekin landu nituen argazki horiek. Afrikarrak ziren gehienak eta ia ez zekiten gaztelaniaz hitz egiten. Bakoitzak jantzi bat marraztu behar izan zuen eta, ondoren, gainerrakoei azaldu. Kasu horretan hiztegia ikasteko erabili genuen”, azaldu du. Artelan bera hainbat gai lantzeko erabiltzea, horixe izan daiteke arte hezkuntza.

### Artea ikasgelan

Baina zer gertatzen da askotan? “Eskoletan uste dute horrelako ekimenera soilik plastikako irakasgaiarekin lotuta etor daitezkeela”, azaldu du Urrutiak. “Edonor etor daiteke, orainxe azaldu dugunez, hainbat gai landu ditzakegulako”. Revueltaren hitzetan, esaterako, irakasgaiak banatzeko modua izan daiteke arazonagusietakobat. “Badirudi ezin dela matematika gimnastika egiten ikasi, edo, ingelesa, margotzen dugun bitartean. Arte hezkuntza irakasgai gehiagotara zabaldu nahi



genuke”, azaldu du.

Urrutiaren ustez, Historian, Espainia lantzen ari diren bitartean, ez dute pentsatzen zer ikuspuntu aztertzen ari diren, nor geratzen diren eskolako

oharretatik kanpo. Hori artearen bidez landuz gero –garai bereko egileen hainbat margolan aurkeztuz, esaterako–, egia absolutua zalantzan jarri ahal izango dute.



# Prest?



## VIII. Zernola olinpiada abiatzera doa!

- Zientzia eta teknologiaren olinpiada
- DBH1 eta DBH2 mailetako ikasleentzat
- Irailetik aurrera
- Ooariak, txangoak, egonaldiak...

Eman izena [www.zernola.net](http://www.zernola.net) helbidean

BABESLEAK



SARINAGUSIA



GOBIERNO VASCO  
EUSKADIA

## Familiak paper garrantzitsua betetzen du euskararen transmisioan. Zer egin daiteke gurasoek eta irakasleek norabide berean jardun dezaten



Azken urteetan esperientzia asko ari dira sortzen eta garatzen norabide horretan. Esperientzia zehatz batetik abiatuko naiz, egin daitekeenaren oso adibide egokia dela uste baitut.

2008ko ekainean, Bilboko Santutxu auzoko Karmelo Ikastolan ikastaro bat eman nien irakasleei euskararen erabilera sustatzeko estrategien inguruan. Horien barruan kokatu nuen, zeharka eragiteko bide gisa, familiarekin lan egitea. Karmelo Ikastolako klausuroak atal hori garatu beharreko bide moduan ikusi zuen, eta 2008-2009 ikasturtean aholkulari lanetan aritu naiz familiengan eragitea helburu duen plan bat garatzen. Plan hori 2 urtetik 7 urtera bitarteko haurren gurasoei zuzendutakoa da. Ikastolak eta irakasleek interes handia agertu dute eta lan handia egin dute, oso esperientzia aberasgarria izan da, eta hainbat oinarri eta tresna garatzeko bide aproposa izan da niretzat ere.

### Gurasoentzako jolas arrakastatsua

Udaberrian jolas bat proposatu zitzaizkien gurasoei. Jolas horretan, hainbat familia tipologiatatik abiatuta, zenbait



**Iñaki EIZMENDI**  
EBETE ELKARTEKO KIDEA

erronka proposatzen genizkien familiei. Aukerakoa zen jolasean parte hartzea, baina, parte hartzekotan, familia osoak parte hartu behar zuen jolasean. Aitzakia moduan euskararen astea hartu zen, eta aste horretan zehar bete behar zuten erronka. Hauek ziren proposatutako erronkak:

- Euskaraz ez dakiten gurasoei: hainbat esamolde proposatu genizkien, euskaraz erabiltzen hasteko esamoldeak. Adibidez: "Ondo pasa duzu

ikastolan?", "Jango duzu bokadiloa?", "Bihar arte"...

- Euskaraz dakiten eta etxean beti euskaraz egiten duten gurasoei: gaztelaniaz erabiltzen dituzten esamoldeen ordez euskarazkoak erabiltzen hasteko proposatu genien. Adibidez: "¿Qué pasada!", "¿A que bai?", "Sin más"...

- Euskaraz dakiten baina etxean beti euskaraz egiten ez duten gurasoei: familia osoa elkarrekin egoten den bi tarte aukeratzeko eskatu genien, eta horietan beti euskaraz egiteko (gutxienez aste horretan). Adibidez: afalorduan, erosketak egiterakoan...

- Batek euskaraz dakien eta besteak ez dakien kasuetan: aukeran utzi genien biak euskaraz ez dakiten multzoan aritzeko, edo bat euskaraz ez dakitenean multzoan eta bestea euskaraz egiten dutenen multzoan sartzeko.

Jolasak arrakasta handia izan zuten. Familia gehienek parte hartu zuten. Amaieran, sari moduan guztientzako merienda egin zen, eta hura ere gurasoek prestatu zuten.

Ikastolako irakasleek ahaleginaren oso balioespen positiboa egin zuten. Hurrengo ikasturteetan ere jarraituko da jarduera horrekin.



## Gurasoentzako tresnak

Gurasoentzako jolas hori tresna bat besterik ez da. Gurasoei hizkuntzari dagokionez hainbat jokabide eskatu nahi zaizkienez, hainbat tresna eskaini ditzakegu, jokabide horiek zein diren ulertzea errazagoa izan dadin eta jokabide horietara iristea errazagoa izan dadin.

Hainbat eta hainbat esperientzia daude norabide horretan. Horietako batzuk oso ezagunak dira. Adibidez:

- Euskarazko produktuen katalogoa: Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan banatzen da, Gabonei begira. Euskaraz dauden hainbat produktu berri agertzen dira katalogo horretan. Zer lortu nahi da horrekin? Gurasoek euskaraz zein produktu dituzten jakitea eta horien aldeko hautua egitea, seme-alabek euskarazko erreferenteak eta euskaraz jolasteko aukera izan dezaten.

- Jolas ikastaroak: euskarazko jolasen inguruko ikastaroak ere asko eskaintzen dira. Helburua? Gurasoak seme-alabekin jolasten direnean euskarazko abestiak erabiltzea. Guraso euskaldunentzat zein euskaraz ez dakiteneztzat oso aproposa.

- Euskara ikasteko aukerak: euskaltegi-tako informazioa, euskara ikasteko bekak, euskara ikasteko guraso taldeak...

- "Mintzalaguna" egitasmoa gurasoentzat: euskara erabiltzeko aukera ematea gurasoei. Bi modutara behintzat egin daiteke: euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak bilduz, azken horiek euskara erabil dezaten, edo gehienak euskaldun zaharrak izan arren euskaraz egiteko ohitura dutenak eta egiteko ohitura ez dutenak bilduz.

Hainbat eta hainbat dira gurasoei zuzenduta eta hizkuntza jarreretan eta jokabideetan eragiteari begira sortu diren tresnak.

Tresna horiek guztiak eragina izan dezaten, komeni da gurasoei argi azaltzea zergatik eskaintzen zaizkien, zergatik aukeratu diren beraiantzat. Bazueta (edo askotan), lan hori behar bezala egiten ez denez, tresnak beste hainbat eskaintzaren artean galtzen dira.

## Gurasoen kezka elebitasunari eta hizkuntzen arteko harremanari buruz

Beharrezkoa da gurasoek elebitasunari eta hizkuntzen arteko harremanari buruz dituzten kezka edo zalantza nagusiak argitzea, seme-alabengan euskararekiko jarrera eta jokabide egokiak susta ditzaten. Hainbat gurasoren kasuan, kezka nagusiak argitzen ez ditugun bitartean, zaila izango da beraien jarrerak eta jokabideak egokitzea.

Koka gaitezen egoera absurdo batean: nire semeak edo alabak igerian ikastea oso ona dela esaten didate. Abantaila asko dituela. Nik ez dakit igeri egiten, baina, igerilekua hemen bertan dagoenez eta irakasleak eta sorosleak bertan izango direnez, konforme nago. Baina, halako batean, zurrumurrubat entzuten hasten naiz, batean eta bestean: egunero igeri aritzen direnez, agian ez dutela oinez ondo ibiltzen ikasiko. Eta sinetsi edo ez, zalantza eta beldurra sortzen dizkit. Bitartean, irakasleak hor ari zaizkit esaten itsasora ere eraman behar dudala semea/alaba igeri egitera. Itsasoan asko ibili behar duela igeri, igeri ondo ikasteko eta erraz egiteko.

Ez du zentzurik, ezta? Bada, euskaraz ez dakiten guraso askori, adibidez, euskararekin antzeko zerbait gertatzen zaiela uste dut. Gu seme-alabei euskara gehiago eskaintzeko eskatzen, eta, bitartean, beraien gaztelaniarekin kezkatuta.

Guraso euskaldunen kasuan ere badira kezka eta zalantza. Horiek arrazoitzen eta argitzen ez badira, ondorioak ez dira beti zuzenak izaten, eta bilatzen diren irtenbideak ere ez dira egokiak: eskolan hasi arte ez zuen gaztelaniaz egiten, eta eskolan hasi denetik asko egiten du. Ondorioa? Errua eskolari botatzea. Egia da, gainera: eskolan hastearekin batera gaztelania erabiltzen hasi da. Baina eskolara joan gabe ere noizbait hasiko zen gaztelania ere erabiltzen, ezta? Bi hizkuntzak ikastea oso ona da. Baina hizkuntza jokabideetan nork du eragin handiena: eskolak ala familiak? Horrelako ideiak argi azal-

## Familiak toki garrantzitsua betetzen dute euskararen transmisioan eragiteko



tzea garrantzitsua da irtenbideak norabide egokian bilatzeko: etxean jokabideei dagokienez eredu izatea, hizkera aberatsa eskaintzea, eskola orduz kanpoko jardueretan euskarazkoak aukatzea...

Guraso euskaldunen zein euskaraz ez dakitene hainbat kezka jaso ditut (eta hainbat argitalpenetan ere aurkitu dituzkegu), baina, irakasle on artean hizketan hasten bagara, laster aterako dugu kezka nagusien zerrenda: eskolako lanak, gaztelaniara jotzea...

### Gurasoei eman nahi dizkiegun mezuak: argi al daukagu zer esan nahi diegun?

Karmelo Ikastolan gurasoei etxeko hizkuntza ohiturekin lotutako jolas hori proposatu zitzaizkion, jolas proposamena egitearekin batera hainbat mezu ere eman zitzaizkien:

- Euskaraz dakiten gurasoen kasuan: gurasoak dira eragin handiena dutenak seme-alaben hizkuntza ohituretan. Eredu izan behar dute, eta eredu izatea modu atsegin batean ere lor daiteke.

- Euskaraz ez dakiten gurasoen kasuan: seme-alabei euskararekiko harreman ona eta handia eskaini behar diete. Hori etxetik ere egin dezakete, euskara jakin gabe ere.

Jolasa bera, azken batean, mezu horien adibide edo osagarri bat besterik ez da.

Beraz, garrantzitsuena, eman nahi dizkiegun mezuak argi edukitzea da. Mezuak argi baditugu, eta zein kezka erantzun behar diegun baldin badakigu, ez da zaila horiek antolatzea eta horientzat tresna osagarriak bilatzea edo sortzea.

Hauek dira Santutxuko Karmelo Ikastolan aukeratu ziren mezu nagusiak:

	Haur Hezkuntza 2-3 urte	Haur Hezkuntza 4-5 urte	Lehen Hezkuntza 6-7 urte
<b>Gurasoentzako mezuak</b>	Euskara eta gaztelania ondo jakingo dituzten ikasleak nahi ditugu, eta, etorkizunean, eguneroko harremanetan euskararen aldeko hautua egingo dutenak. Ikastolatik ahal dugun guztia egingo dugu norabide horretan, baina mugak ditugu. Bai elebitasunera begira baita hizkuntza jokabideetara begira, familiak eskolak baino eragin handiagoa du.		
<b>Non kokatuko gara?</b>	Non kokatuko gara? Familia barruko harremanetan kokatuko gara: familia erduen arabera jokatzeko moduak, aurrera egiteko moduak, eredu izateko proposamen zehatzak...	Lagunarteari begira jarriko gara: lagunarteko harremanetan eragiteko moduak, eredu izatearen garrantzia, laguntzeko moduak...	Eskola orduz kanpoko jardueri eta egoerei begira jarriko gara: eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz izatearen garrantzia, kaleko egoeretan eredu izatearen garrantzia...

### Karmelo Ikastola: mezuetatik tresnetara

Ikusten denez, mezuak landu dira lehendabizi: zer mezu eman nahi diren eta mezu horien inguruan zer diskurtso garatuko den (zer azalduko zaien, nola azalduko zaien...).

Ondoren, haurren adinaren arabera zein kezka erantzun nahi zaion aukeratu da, eta horietarako diskurtsoa ere prestatu da.

Hirugarren pausoa mezuak emateko eta kezkek argitzeko zein bide erabiliko diren aztertzea izan da, hau da, planifikazio bat egitea, ikastolaren eta irakasleen ezaugarriak ere kontuan hartuta: zer eta nola esango den geletako bileretan, banakako bileretan, matrikulatu aurretik ikastolara gurasoak informazio bila joaten direnean...

Laugarren pausoa mezuak ematekoan tresna osagarriak erabiliko den aztertzea izan da, eta, horrela, tresna horiek lortzea edo prestatzea: esku orriak, hitzaldiak, bideoak... Hau da, mezuak ahoz azaltzeaz gain, bestelako euskarriak erabiltzea egoki ikusten bada, haiek prestatzea.

Azkenik, gurasoei zein tresna eskainiko zaizkien ere landu da, mezuekin eta kezkekin lotura zuzena izango duten tresnak. Noski, baliabideen arabera, tresnak asko edo gutxi eta landuak edo xumeak izan daitezke. Karmelo

Ikastolaren kasuan, baliabide material gutxi dituzten arren, hainbat tresna prestatu dira: gurasoentzako hizkuntza oinarri duten jolasak, eskola orduz kanpoko euskarazko jardueren gida, esamoldeen zerrendak, haur jolasen inguruko ikastaroak, eskolako lanei buruzko bilera bereziak, eta abar.

### Baina, aritu behar al dugu familia bidezko euskara transmisioari buruz gurasoekin?

Karmelo Ikastolaren kasuan, noski, ondorio horretara iritsi dira: ikastolak (irakasleen bidez nagusiki) familien hizkuntza jarreretan eta jokabideetan eragiten ahalegindu behar du. Beste hainbat eta hainbat ikastetxetan ere ondorio horretara iritsi dira, eta lan handia ari dira egiten.

Irakasleon zeregin nagusia, zalan-tzarik gabe, hurrekin eta gazteekin aritzea da. Euskararen kasuan, adibidez, ezagutza eta erabilera helburu batzuk lantzea beraiekin. Horretan jarri behar dugu gure ahalegin handiena eta hori ondo eta gustura egitea lortu behar dugu. Haurren eta gazteen euskararen erabileran eta ezagutzan zuzenean eragin behar dugu.

Ikastetxetan irakasleek ahalegin handia egiten dute norabide horretan. Baina etxetik euskara jasotzen duten hurrekin eta gazteekin izaten dute, oro

har, hizkerarik aberatsena eta euskaraz aritzeko erraztasun handiena. Are gehiago: seme-alaben hizkuntza jarretan eta jokabideetan eragin handiena gurasoek dute. Imitazioa da ikasteko modurik eraginkorrena, eta hurrekin gurasoen jarrerak eta jokabideak imitatuko dituzte hizkuntzari dagokionez ere.


Beraz, ikastetxeak eta gurasoak norabide berean aritzea lortuko bagenu, hizkuntza helburuak lantzeko askoz egoera eta aukera hobek izango genituzke.

Noski, eragina mugatua izango da. Irakasleak eta gurasoak norabide berean aritzea gure helburutzat hartzea ondo dagoen arren, baliabide mugatuak ditugunez, zeregin horretan egin dezakegun ahalegina gure ezaugarrietara egokitu beharko dugu. Gainera, nahi adina baliabide izanda ere, gurasoen aukera izango da gure proposamenei kasu egitea edo ez egitea.

Mugak hor daudela ikusita ere, merezi du eragiten ahalegintzea. Gutxienez gurasoei azaldu beharko genieke zein diren guk beraiengandik nahi genituzkeen jokabideak. Horrek izan beharko luke gutxienekoa, eta hortik aurrera tresna batzuen bidez norabide horretan jardun dezaten laguntzerik izango bagenu, askoz hobek. Hainbat guraso lehendik jokabide horietatik hurbil ibiliko dira, guraso batzuek ez dugu inoiz lortuko eragiterik, baina beste hainbat gurasorengan eragina izan dezakegu, eta, mezuak ondo aurkezten badizkiegu, oso gustura har ditzakete.

Familiak toki garrantzitsua betetzen du euskararen transmisioan eragiteko. Zer egin daiteke gurasoek eta irakasleek norabide berean jardun dezaten? Mezuak argi azaldu, kezkek argitu eta hainbat tresna eskaini, norabide berean jardun dezaten laguntzeko. Hori behintzat egin dezakegu, eta, duen garrantziagatik, merezi duela uste dut.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

azaroa

berriak

# ...eta zoriontsu jan zuten

MSF Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak ... eta zoriontsu jan zuten elkartasun ziber-jokoa jarri du sarean, euskaraz. MSFren arabera, irakasleek beren ikasleen artean zabaltzeko ziber-jokoa da. Haurren elikadura faltari buruzko historia baikor baten bidez umeen desnutrizioaren errealitatea ezagutaraztea da jokoaren helburua. Errealitatea zabalduz eta gertatzen dena zabalduz ere laguntzen baita.

Jolasa 10 urte baino gehiago duten haurrentzat egina dago. Umeen elikadura faltaren errealitatea ezagutu dezaten, egoeraren jabe izan daitezten eta errealitatea agertzeko helburuarekin.

Hurrek Mugarik Gabeko Medikuek Nigerren (Afrika) duten elikadura proiektu batera bidaiatuko dute jokoaren bitartez. Bidaiaren une bakoitzean

desnutrizioa zer den, nola neur daitekeen eta jateko prest dauden elikagaien bidez elikagai gabezia pairatzen duten 60 milioi haur onik atera eta senda daitezkeela ulertzeko behar duten informazioa jasoko dute pixkanaka.


Jokoa bukatzen denean, arazoa larria den arren, desnutrizioari aurre egiteko irtenbidea dagoela ikasiko dute gaztetxoek.

MSFren ...eta zoriontsu jan zuten ziber-jokoa ezagutzeko aukera ondorengo helbidean duzue:

<http://juega.msf.es/ek/index.html>



## Aniztasun Afektibo-Sexuala



Gehitu Euskal Herriko Gay, Lesbiana eta Transexualen elkarteak Anizta-

sun afektibo-sexuala haur eta lehen hezkuntzan izeneko jardunaldia antolatu du. Datoreen azaroaren 7an, larunbata, Donostiako Berritzegunean (Atarizar kalea, Ategorrieta auzoa).

Egun osoko jardunaldia izango da, eta, besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dituzte: nola landu daitekeen sexu aniztasuna heziketa planeko hainbat elementuren bidez, osa daitezkeen unitate didaktikoen adibideak, haur eta lehen hezkuntzarako material bereziak...

Hizlariak Mercedes Sanchez Sainz eta Melani Penna Tosso izango dira. Lehen hezkuntzan doktorea da, eta Cómo educar en la diversidad afectivo sexual en el sistema educativo liburua-aren koordinatzailea da. Bigarrena, berriz, psikologoa da, eta hezkuntza fa-

kultateko irakaslea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

### Ordutegia

Goizean: 10:00etatik 14:00etara

Arratsaldean: 14:00etatik 18:00etara

### Prezioa

Ikastaroa eta bazkaria: 15 euro

Ikastaroa: 10 euro

### Izen ematea

943 46 85 16 telefonoan (Koldo-bike).

Astelehenetik ostegunera: 9:00etatik 13:00etara

Ostiraletan: 16:00etatik 20:00etara

Eman beharreko datuak: Izena, ikastetxea eta harremanetarako telefonoa.

# Ikasle Eguna

# Ikima tailerrak



Geroa marraztera goaz! lelopean eta Ikasle Abertzaleek antolatuta Arratsen (Gipuzkoa) egingo da datorren urriaren 7an, ikasle eguna. Euskal Herriko ikasleen egungo egoera aztertzea izango da eguneko helburuetako bat. Eta Ikasle Abertzaleek azaldu dutenez, egoera horretan oinarrituta taldearen «alternatiban» sakontzeko asmoa dute.

Goizean hasi eta gauera arte iraungo duten hamaika ekimen antolatu dituzte egun horretarako. Goizeko hamarretan ekingo diote egungo egoera aztertzeari eta, besteak beste, ondorengo gaiak landuko dituzte: «ikasturte hasieran ikastetxeetan eta fakultateetan gertatu diren eskubide urratzeak eta Ikasle Abertzaleen egitasmoari mugak ezartzen dizkieten egoerak». Dena den, egungo egoerari «marra gorriak» ezarri ez ezik, etorkizuna «marrazteko» lerroak ere aztertuko dituzte, Ikasle Topaketetan egindako lanaren bidez.

Nahiduenak parte har dezake, izan ere, Ikasle Abertzaleek jakinarazi dutenez, Ikasle Egunaren egitaraua bera parte hartze izatea da helburuetako bat.

Hori dela eta, besteak beste, ikasle- en musika taldeei taula gainera igotzeko aukera emango zaie. Gainera, goizean goizetik umeentzako jolasak, erakusketak, denda eta bestelako txokoak izango dira topaketetan parte hartzen ez dutenentzat. Arratsaldean, Ikasle Bazkariaren ondoren, antzerkia, batukada eta Hezkuntza Sistema Nazionalaren gunea izango dira. 19:30ean, berriaz, Sebero Altube plazatik hasita manifestazioa egingo dute. Eguna bukatzeko, unibertsitatean, Des-Kontrol, KOP, Esne Beltza, Zea Mays eta Radio Afu taldeen kontzertuak izango dira. Sarrerak 15 euro baliodu, aldeazurretik erosiz gero, eta 18 euro azaroaren 7an bertan erosiz gero.

Turretako Udal Liburutegiak hamalau urtetik gorako gazteentzako Ikima tailerrak antolatu ditu Durango eta Iurretan, musutruk! Lantegi edo tailer horietan, idazketa, komikigintza, hip-hop, poemagintzat, edizioa, photoshop bidezko ilustrazioa... lantzeko aukera izango dute apuntatzen diren gazte guztiek. Gainera, laburmetraia bat grabatuko dute eta baita ibilaldi literarioak egin ere.

Spot dibertigarria grabatu dute tailerrak iragartzeko: <http://www.youtube.com/watch?v=KQooNd2nW5s>

Giro onean, eta ondo pasatzeko helburu nagusiarekin hainbat gairen inguruan ikasteko aukera eskaintzen dute Ikima tailerrek. Honela dio spotak: jende interesagarria ezgutzeko, ondo pasatzeko, lagunak egiteko, gauza dibertigarriak sortzeko, barre batzuk egiteko...

## Izena emateko

946812726

biblioteca@iurreta.com

946030041

liburutegia@durango-udala.net

## IKAS euskal pedagogia zerbitzuak 50 urte bete ditu

IKAS euskal pedagogia zerbitzuak Uztartitzeko (Lapurdi) Lota Jauregian ditu bulegoa eta dokumentazio zentroa. Bereziki, ikasmateriala eta gai kulturei buruzko 21.000 liburu, aldizkari, CD-Rom, bideo eta abar ditu. Bertan, kontsulta edo maileguz har daitezke edozein liburutegi publikotan gisa. Dokumentalistak, berriaz, argitasunak eskaintzen ditu.

IKASek ikasmateriala sortzen edo itzultzen, argitaratzen eta zabaltzen ditu euskal irakaskuntzako ikasleentzat eta irakasleentzat.

Irakaskuntzarekin zerikusia duten ikastetxe publiko, pribatu, ikastola edo AEKrekin aritzen da lanean, denentzako irekia baita.

Argazkian agertzen da Agnès Dufau zuzendaria. Lehendakaria, aldiz, Alazne Petuya da.

IKAS 1996 urtetik aurrera diru publikoz hornitzen da %100ean, zentroa pedagogia zabaltzeko erakunde gisa izendatua izan baitzen.

Sortu zela 50 urte betetzen ari den honetan, har dezala euskal hezkuntzako kideo zorionak.





**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...**

**>>> A gripea dela, ekonomiaren krisia dela, erasoak direla... Hezkuntzaren ikuspegirik, nola jokatu beharko genuke halako presio mediatikoen aurrean? Nola jokatu beharko lukete komunikabideek? Nola...**

**> Kritikotasuna landu beharra dago**

Hasteko, esan behar dut, komunikabideen egitekoa komunikatzea dela. Izan behar luke behintzat. Txorakeria badirudi ere, ez dute objektibotasun minimoaz informatzen, eta, berez, horrek izan beharko luke beraien egitekoa. Berriak ematea, egia bilatzea, ikuspuntu desberdinak agertzea...

Gaurko komunikabide nagusien egitekoa jendea interes batzuen arabera manipulatzeko da. Euren interesei indarra ematea eta errealitatea ezkatzea. Hau da, beraien interesen arabera informazioa eskainiz, jendearen iritzia bideratzea dute helburu nagusia. Hori ez da informatzea, manipulatzeko baizik.

Oso kuriozoso da egunero bizi dugun errealitatea komunikabideek nola kontatzen duten ikustea. Horrela, beste "errealitate" fiktizioa sortzen dute eta egia balitz bezala aurkezten digute. Guk, hezkuntzan, amua irensten dugu askotan, eta errealitate objektiboa aurkeztu beharrean, kontatzen diguten "errealitatea" transmititzen dugu.

Ez da hori, nire ustez, hezkuntzaren egitekoa. Alderantziz baizik, errealitatea ulertzeko ahalik eta elementu gehien agertzea eta hausnarketa pertsonalaren eta kolektiboaren bidez, errealitate objektiboa hobetzen jakitea. Horrek izan behar luke gure egiteko nagusia.

Horrela, kritikotasuna lantzen arituko ginatke. Agian, sortzen ari garen mundu berrirako hezkuntzak egin lezakeen ekarpenik garrantzitsuenak litzateke. Ez al zaizue iruditzen?. *Axel. F.*

**> Beldurra sortzea hobeto kontrolatzeko**

Ezaguna da beldurraren teknika. Lehen, AEBetan, maiz agertzen ziren komunikabideetan barneko sarraskiak, kanpoko eraso militarren arriskuak... Hiritarrak beldurtzeko eta iritzi publikoa kontrolatzeko. Gaur egun, oso zabaldua dago teknika hori, baita gure artean ere. Kontua da gero eta irizpide zehatzagoak, jendarteratzeko une aukeratuagoak, hedapen zabalagoaketa teknika sofistikatuagoak erabiltzen direla.

Nork egin zien ihes behi eroen arriskuei? Nork oiloen...? Nork txerrien...? Nork HIESaren zabalkundeari? Nork sexu...?

Komunikabideek erantzukizun handia dute jendea beldurtzeko eta iritzia kontrolatzeko egiteko horretan, baina ezin da beste modu batez izan. Azken finean, botere erreala dutenek ez al dituzte, bada, komunikabideak kontrolatzen eta jendearen iritzia manipulatu? Beraiek diseinatzen dute eta beraiek zabaltzen dute interesatzen zaien une eta modu zehatzean.

Hezkuntzatik zer egin litekeen? Nik ez dakit. *Jexuxmai*

**Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> Oraingo bera mantentzen da.**

**Partekatze proiektuak**

Eskuarteetan proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzera bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatze aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

**Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!


# argitalpenak



## Hala Bazan

Mikel Martinez / Enrique Morente  
DESCLÉE

Ipuinak. Mota guztietako ipuinak bildu ditu Desclée argitaletxeak Hala Bazan bilduman. Bi liburu dira, eta bakoitzean hemezortzi istorio bildu dituzte. Ipuin laburrak dira, gurasoek eta haurrek batera irakurri ahal izateko, norberak irakurtzeko, edota taldean ahoz gora kontatzeko modukoak. Animaliak orohar, izarrak, printzesak, gazteluak... izango dira protagonista. •



## Asier Buruhandiagaren okerrak

Maria & Juan Bas / Iñaki Seguro  
EREIN

Asier Buruhandiaga du izena istorio honetako protagonistak. Ez zaio ohiko abizena egokitu, alajaina. Hamaika urte ditu, Bilboko Alde Zaharrean bizi da, eta abizen hori nondik nora egokitu zaion jakin nahian dabil. Naxkak, Txulitak, Gezurginak eta Plastak osatutako taldeko burua da Asier. Elkarrekin, ikaskideen jazarpena jasaten duen Rosita, Asierren arreba, salbatu nahi dute. •



## Ez naiz sirena bat, eta zer?

Katixa Agirre / Eider Eibar  
ELKAR

Ura sartzen zaio belarritik eta begiak gorritzen dizkio. Horregatik Heleenari ez zaizkio igeriketa-klaseak eta igerilekua, batere gustatzen. Gainera Sorkun irakaslea ez du batere atsegin. Ikastaroa errepikatu behar du, baina hurrengo ikasturtean Ibon izango da irakaslea, eta horrek apur bat aldatuko ditu gauzak. •



## Eskuekin mintza!

Angela Fernandez / J.M. Beltran  
EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzaz Eskuekin mintza! CD-ROM-a kaleratu dute Angela Fernandez eta Jose Manuel Beltranek. Lanak Heziketa Bereziko ikasle eta irakasleei zuzendutako zenbat informatika programa eskaintzen ditu, komunikazio arazoak gainditzeko laguntzeko xedearekin. •



## Ahalmen partekatuak

Jansain & Pable Zerda  
SAURE

Soltaren neska gaztea erresuma berribaten bila abiatzen da bere lagunekin. Irudimenez betetako komiki liburua honek bidaia horretan izango dituzten gora-beherak kontatzen ditu. Oztopoei aurre egiteko modurik onena lankidetzaren delak konturatu da. Jasotako eskarmentuari esker pribilegioekin itsututako gortea eraldatu da. •



## Azazkalak jaten

Amaia Jauregizar  
EUSKALRTZAINDIA/BBK

Olerki-liburu honekin irabazi zuen 2008an Amaia Jauregizarek Euskaltzaindiak eta BBK antolatutako Felipe Arrese Beitia literatur saria. Egunak aurpegi asko izan ditzake, egun horietako protagonistenak bezainbeste. Aurpegi horietako zenbait hartzen ditu ardatz hiru ataletan banatutako Jauregizarren lan honek. •

# ... nora joango gara?

## Ekainberri

### Erreplika bat baino zerbait gehiago

**Ekaingo haitzuloaren erreplika da Ekainberri. Sastarraingo bailaran dago kokatua, jatorrizko haitzulotik 600 metrora eta Zestoako (Gipuzkoa) erdigunetik metro gutxira. Gure arbasoen kezken eta jakin-minaren lekuko diren margo horiek behar bezala zaintzeko sortu zen Ekainberri proiektua. Iazko irailean zabaldu zuten jendearentzat, eta ikastetxeentzako eskaintza zabala ere prestatu dute.**

Madeleinealdiko labar pinturak dirrela eta da ezaguna Zestoatik kilometro eskasera dagoen Ekaingo kobazuloa. Historiaurreko kokaleku hori 1969an aurkitu zuten Azpeitiko (Gipuzkoa) Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal espeleologoek. Gutxi gorabehera, 70 animalia irudi daude; 64 margo-tuak eta 6 grabatuak. Zaldia da gehien ageri dena, baina hartzak, oreinak, kapridoak... ere badaude. Horiek guztiak ikusteko aukera eskaintzen du Ekainberriko erreplikak.

Margo horiek guztiak milaka urte egin dituzte ezkutuan. Hots, Ekaingo haitzuloaren mikrokliman babestuta eta behar bezala mantentzeko baldintza egokienetan. Nola lortu, ordea, gure arbasoen kezka eta jakin-minaren lekuko diren margo horiei so egotea, kalterik sortu gabe? Behar horretatik sortu zen Ekaingo kobazuloaren erreplikaren ideia.



Lurpeko altxor hori behar bezala zaintzeko eta herritarrei zabaltzeko, Ekaingo kobazuloaren kopia egiteko ekimena jarri zen martxan. Urteak eman zituzten erreplika behar bezala prestatzen eta, azkenean, iazko irailean zabaldu zuten.

Garai hartako gure arbasoen munduan murgiltzeko aukera eskaintzen du Ekainberri. Ikastetxeek bi aukera dituzte: Ekaingo erreplikaren bisita gidatua egitea, edo, bisita ez ezik, haur eta gazteentzat bereziki prestatutako lantegietan parte hartzea. Bigarrena aukeratuz gero, ikasleak duela 10.000 urte baino gehiago Ekaingo marrazkiak egin zituen eta bertan bizi izan zen taldeko kideak bezala sentitu ahal izango dira. Beraien kobazuloan sartu eta marrazkiak egingo dituzte, gure arba-

soen teknikak eta materialak erabiliz. Era berean, Historiaurreko gizakiaren ehizarako teknikak ezagutuko dituzte, edo, nahi izanez gero, sua nola egiten zuten ikasiko dute. Ekainberri erreplika bat baino zerbait gehiago baita.

#### Hezkuntza eskaintza

#### Bisita gidatuak Ekaingo kobazuloaren erreplikari

Ekaingo kobazuloa labar artea ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen dugu Ekainberri. Orain dela 13.000 urte Ekaingo kobazuloan bizi izan zirenen marrazkiak gozatzeko aukera izango duzu, eta garai hartako bizimoduaz gehiago ikasiko duzu. LH1etik aurrerakoiek zuzenduta. Ikasmilaren arabera egokitutako bisitak.



**Lantegiak:** LH1etik aurrera eta adinaren arabera hainbat lantegi eskaintzen ditugu. Horien bidez ikasleak Ekaingo kobazuloan bizi zen giza taldearen modura sentituko dira.

- **Ekain eskura:** lantegi honen bidez, ikasleek gure arbasoek Ekaingo marrazkiak egiteko erabiltzen zituzten teknikak eta materialak ezagutuko dituzte. Aerografoaren laguntzarekin eta okrea erabiliz margotzen ikasiko dute.

LH1, LH2, LH3 eta LH4 mailetak ikasleei zuzendua.

- **Ekaingo giza taldea:** ikasleak Ekaingo giza taldearentzat suak zuen garrantziaz ohartuko dira. Garai hartan sua egiteko erabiltzen zituzten materialak eta teknikak zein ziren ikasiko dute, eta sua egiten ere ahaleginduko dira. LH4, LH5 eta LH6 mailetak ikasleei zuzendua.

- **Ehiza egun bat:** ikasleak ehiztari bihurtuko dira Historiaurreko erremintez baliatuta, hala nola arkuz, geziz, bultzagailuz eta azagaiz. DBHko eta batxilergoko ikasleei zuzendua.

#### Erakusketa gela

Ikasleek Euskal Herriko labar arteari buruzko erakusketa interesgarria daukate beraien esku, gai honetan gehiago sakontzeko eta Ekaingo giza taldeari buruz gehiago ikasteko aproposa dena.



## EKAINBERRI

Portalea kalea 9  
20740 Zestoa (Gipuzkoa)  
[www.ekainberri.com](http://www.ekainberri.com)  
Telefona: 943 86 88 11  
(erreserbak egiteko)



### Oharrak:

#### - Ordutegia:

Asteartetik ostiralera: 10:00etatik 18:00etara.

Asteburuetan eta udan: 10:00etatik 19:00etara.

Astelehenetan itxita (uztailean eta abuztuan izan ezik).

#### - Prezioa:

Sarrera arrunta: 5 euro

Murriztua: 4 euro

Taldea: 75 euro

Talde murriztua: 60 euro

### Nola iritsi:

Ekainberri Zestoa dago, Gipuzkoa erdialdean. Herrira bi aldetatik hurbiltzeko aukera dago, Zumaiatik eta A-8 autobidetik (iparraldetik) edo Azkoititik eta Azpeititik (hegoaldetik).

Autobidean 12. irteera hartu behar da, eta, hortik aurrera, GI-634 errepideari jarraitu Zestoara iritsi arte.

Hegoaldetik, Azkoitiko eta Azpeitiko herrietatik pasa eta GI-634 errepidea iparralderantz hartu behar da Zestoara iristeko.

### Nola hurbildu:

Behin Zestoara iritsita, autoa edo autobusa Ekainberriko aparkalekuan utzi beharko da. Orduan hasiko da Ekainberri bisita. Herrigunean, Portalea kalean, dagoen informazio bulegora joan eta bertan sarrerak eskuratu. Handik oinez egin behar da Ekainberriko bidea. Herria zeharkatu, zubia igaro, Lili jauregia ikusi eta erreka ondotik oinez, zuhaitz artean eta uraren hotsak girotuta, 800 metro inguru egin behar dira Ekainberri iristeko.



# atzeko atetik



**Teresa LOPEZ DE MUNAIN**

**ANTZETZLEA ETA BIODANTZA IRAKASLEA**

Nik eskola biribila nahiko nuke, non maitasuna guztiaren erdigunean lego-keen.

Non haurrak ez lirakeen sekula eta inongo arrazoirengatik jatera behartuak izango, ez jantokiko jana ez eta arimako elikagairik ere. Janaria gosearen eskaria delako eta gizabanakoaren barruan arrazoi ezkutuak daudelako irekita ala itxita egoteko.

Denen adreoluz eraikitako eskola bat, denen ametsak azaltzen dituena. Arkitektuak denek esandakoez denentzako lekua egin dezala. Eskola biribila, egunero dantza biribilak egiteko, eta ez karratua ertz baztertzailaz betea. Non daude gure inguruko eskoletako zuhaitzak? Eta natur txokoak? Nik egunero musika eta dantza librearekin hasiko nuke eskola-eguna, daukagun lehenengo errealitatea gorputza delako eta hari

## Eskola biribila

jarri behar diogulako arreta, hemen eta orain egoteko. Eta hurrek, helduek bezala, ideiak fabrikatzeko eta buruko makina baretzeko, gorputzari entzun behar diote.

Eta banan banan taldeko lagun guztiak begietara begiratu, bihotzeko gorabeherak azaldu eta besarkadez arindu. Egunero barre egiteko motibo batekin hasi beharko litzateke eguna, edo gutxienez saiatu.

Hauxe nik ezagutzen dudan mutiko baten istorioa da:

- Ea bada, seme – esaten dio amak.

- Bukatuko al ditugu behingoz ditxosozko matematikako etxeko lanak? Batuketa eta biderketa xume batzuk baino ez dira.

Iganderoko tortura-orduak. Negar egiteraino ailegatzen den erronka, gurasoen negarrak eta etsipena. Badirudi beren 9 urteko semeak ez duela bururik bere ikaskideek menderatuta daukatena egiteko. Eta semeak  $7+2 = ?$  ariketaren aurrean, begirada tinkoa. Dozena erdi beso-pare jarri dizkio eskuz egindako plastilinazko munstro baten eskulturari, baina  $7+2=?$  batukerari berarekin zerikusirik ez duen zerbaiti bezala begira gertzen da... Une amaigabeak. Idatzi behar duela ematen duenean, zenbakiak tinta gehiago markatu eta aho bat gehituta

batuketa robot baten aurpegi bihurtu du!

- Mutiko, jaitsi zaitez zauden hodei horretatik eta zenbatu ... 7, 8, 9!

Zenbat igande arratsalde, astelehenetik ostiraleraino egin beharreko materiala ez egitearren asteburueta pasatzen dena. Eta denek dakite Asierrek gaitasun nabarmenak dituela plastikarako, antzerkirako, marrazteko, istorioak asmatu eta kontatzeko... Orduan, eskolako lanak ondorengoa behar luke: mutiko hau errealitatera erakartzea. Eta errealitatea curriculum pedagogikoa da: ikasle guztientzat helburu berberak dituena. Kosta ala kosta mundua oso lehiakorra dela eta frustrazioa geure-geurea dela.

Zer gertatuko litzateke haur bakoitzaren joera eta interesari ondo begiratu, irakasleek, gurasoek eta haurrak berak gaitasun eta interes horiek bultzatzeko plana egingo balute? Eta horiek mutikoaren ikasketen ardatzean ipiniko balituzte, horrela haurrak lan egiteko konpromisoa har dezan?

Horrek ez al luke aldatuko haurraren jarrera? Eta haurraren arreta lortuta ez litzateke errazagoa beste helburu akademikoak zeharka eta ondotik erakartzea? Eskola biribilean, beharbada, lan gehiago egongo litzateke, baina baita jaiakortasun gehiago ere.

Frogatzeko dago.



**Badu bere garrantzia haurrei agertzeak gure asmoen barneko logika, nahiz eta oraindik ilunpean gelditu asmo horien arrazoia.**

**Imanol Urbiet**

# Begiratu zientziari beste era batera!

gizarte ekintza

hozakuntza



## Etortzen bazara ez duzu alde egin nahi izango.

- 172 esperimentu interaktibo.
- Planetarium Digitala. **BERRIA**
- Planetarium Txikia.
- Exploratoriumeko simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia.
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta.
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ...

### Zientziaren kutxaGunea

Miramongo Parke Tكنولوجikoa - DONOSTIA

☎ 943 01 24 78

[www.miramoni.org](http://www.miramoni.org)



zer nahi duzu bihar?

GAZTE EGONALDIAK **09-10**  
ESPEJOKO aterpetxean



Ikastolen Elkartea

GAZTE EGONALDIAK ESPEJOKO ATERPETXEAN GAZTE EGONALDIAK



Ikasturtean zehar  
**EUSKARA HELBURU  
IKUS-ENTZUNEZKOAK  
ONDARE HISTORIKO KULTURALA**

**Hartzaileak:**

- Lehen hezkuntzako 3. mailatik, batxilergoko 2. mailara arteko ikasleak (hegoaldean).

- Lehen mailako 2. urtetik, terminalera arteko ikasleak (iparraldean)



**Non:** Espejoko aterpetxean, Araban.  
**INFORMAZIDA ETA IZEN EMATEA:**  
**Telefonoa: +34 945 23 33 55**

